

Politika erreflexiboa. Praktika eta errepresentazio garaikiderako ikerketen agenda

Andoni Eizagirre
UEUko Soziologia saila

Soziologia sailak antolatutako udako ikastaroetarako (Biarritz, 2003-07-09/10) idatzi artikulu honetan, politikaren zedarritze berri bat proposatzen da. Gailendutako ikuspegia kritikatu eta, dialektika fatala gainditze bidean, proposatuko da gizarte garaikideetan badaudela botere-harremanak eraldatzeko, gizarte-aldaketa bultzatzeko eta konplexutasunak, dilemak, ifrentzuak jasoko dituen espazio publikoa irekitzeko zantzuak. Horretarako, baina, modernitatearen printzipio eta instituzio legitimatzaileak ez eze, politikaren erreferentziarako kategoria markoak ere pentsatuko dira.

In this article, written for the summer courses organized by the sociology department, it is proposed a new view of Politics. In the way to overcome the fatal dialectic and to critic the dominating view, it will be proposed that in the contemporary society there are ways to open public spaces which will get the backhands, complexities and dilemmas, change the power relations and push the society change. Nevertheless, to do this, the categorizations of Politics' reference should be rethought instead of the principles and legitimating institutions of the modernity.

On the other hand, propositions want to draw the context that can valid the society's new movements, criticizing the empirical and normative reading.

1. Sarrera¹

Ikastaroaren azalpen-lerroetan irakur daitekeen modura, bi izan dira Gizabere politikoa hizpide denean aurkeztu diren formulazio klasikoak. Ikuspegi baten arabera, gizakiari berezkoa zaio politikoa izatea; bigarren ikuspegiaren arabera, berriz, boterearen eremuan dabilen gizakia da politikoa. Bietan ere bada, ordea, lehen une batean komuna suerta litekeen ideia: biek ala biek lotuko dute politika gizartean auziak sortu, eztabaidatu eta konpontzearekin. Batzuentzat, prozesuan herritarrek eurek beharko dute parte hartu; besteentzat, aldiz, herritarren ordezkariak, elite politikoak; politika boterean dagoen hark egiten duen heinean. Ezaugarri komuna eta bereizlea lirakeke aipatu diren horiek.

Gobernu onaren artistak zein izan, alegia, gobernu onaren artistak herritarrak edo herritarren ordezkariak izan, ordea, joko-arauak eta joko-eremuak aldatu egiten dira, baita herritarrekiko gertutasuna eta erantzukizuna, eta, azken batean, herritarrekiko irakurketa ere bai. Beste horrenbeste esan genezake herritarren portaeraz: gizartean sortu auziekiko erabaki-ahalmena nolakoa izan, halakoa izango da gero gizartean dauden auziekiko euren parte-hartzea, erantzukizuna, irakurketa. Lotura bat dago esfera publikoa eta publikoaren esferaren artean, harreman lineal eta ordenatua ekinbide alternatiboetatik hautsiz.

Artikulu honi dagokionez, eginbeharra ez da soilik parte-hartzearekiko eta politikarekiko irakurketa instrumentala, normatiboa edo sustantiboa proposatzea; gogoeta horiek gainerako hizlarien aurkezpenetan aurkituko dituzue. Politikaren inguruko gogoeta batean ez da nahikoa herritar eta ordezkarien arteko harremanaren nolakotasuna eztabaidatzea. Hori bezain garrantzitsua da gizarte garaikidean kokatzea gure hausnarketa, eztabaida eta proposamena testuingururatzeko, eta herritarrek politikarekiko duten irakurketa, politikoekiko dutena nahiz politikaren eremuarekiko dutena aztertzea, baita herritarren jarrera eta portaera horien guztien zergatiak argitzea ere.

Eztabaida teorikoaren ondoan ezinbestekoa da esfera publikoak izan duen bilakaera ulertzea. Izan ere, gizakiari politika eta parte-hartzea berezkoak ote zaizkion eztabaidatzeari baino garrantzitsuagoa deritzot gizarte garaikidearen nahiz iraganbide modernoaren aldagai desberdinak aztertzeari. Irizpide horri jarraituz ulertu ahalko dira gaur nagusitzen ari diren egitate eta joerak; hain zuzen ere: interes-taldeen liberalismoa, populuaren subiranotasuna galtzea, herritarrak pribatura biltzea, politikaren toki-aldatzea —izan pribatizaziora izan eguneroko praktike-tara— eta res publica edo gauza publikoaren berdefinizioa, besteren artean. Politikarako baldintza den generik aurkitu ezean, hots, gene baten zertarakoa gizakiak politikan parte hartzea dela aurkitu ezean, eta gaurko egoerak iraultzeko, lehenik eta behin, giza harremanetara eta gaurko testuingurura jo behar dugula iruditzen zait. Era berean, politikaren irakurketa orokor bat lagungarria izan dakioko entzuleari edo irakurleari beste hitzaldi edo artikuluak errazte aldera.

1. Lan hau “Zôon politikon berririk ba ote? Gizabere erreflexiboa” izenburupean aurkeztu nuen 30. Udako Ikastaldietan, Biarritz 2003/07/9-10. UEUko Soziologia sailburu Mario Zubiagari eskertu nahi diot, mintegira hurbiltzeko gonbidapena.

Bi ideia oinarri harturik egituratu da lana. (1) Gaur oraindik goian aipatu bi formulazio klasikoak bereizi ahal dira, nahiz eta aldaera berriak dituzten. Halere, dominatzaera heldu den hirugarren ikuspegi bat ere badago, politikaren ideia askatzailearekin loturak hautsi dituena: demokrazia instrumentu gisa teorizaturik, hau da, demokrazia giza bakea eta askatasuna (jabetza pribatua) babesteko tresna soil gisa harturik, merkatua bermatzeko erabilgarritasunaren arabera izango da politikaren unean uneko esanahia (Hayek, 1944; Nozick, 1974). Hirugarren ikuspegi horren arabera, helburua giza bakea, askatasuna eta Merkatuan interesak salerostea izango da, eta horretara egokitu beharko du garaian garaiko sistema politikoak. (2) Politika eta sistema politikoa husteak, alderdi-sistema eta demokrazia parlamentarioa husteak, herritarren jarreraren eragiten du: batzuek pribatura joko dute, eta besteek, politikaren espazio berriak sustatzeko ekimenak abian jarriko dituzte (Béjar, 2000). Azken horri helduz, hirugarren ideia bat erantsi ahal dugu: gizartean parte-hartzearen arabera edo parte-hartze ezaren arabera, jendeak irakurketa soziopolitiko bat edo bestea egingo du inguru glokalarekiko (Martínez, 2003). Hor datza erronka: indibidualizazioarekin biografia erreflexiboez politikan ireki ditzaketan aukera berriak (Beck eta Beck-Gernsheim, 2001) gizartearen dinamikotasunaren arabera izango dira. Hau da laneko tesietako bat.

Botere-harremanak eraldatu, gizarte-aldaketa bultzatu eta konplexutasunak, dilemak, ifrentzuak jasoko dituen espazio publikoa irekitzeko zantzuak badaudela gaurko gizarteetan proposatuko da aurkezpen honetan. Hori dela eta, hiru zati bereiziko ditut.

- Lehen zatian, sarrera modura, Gizabereari buruzko oharrik egingo dira. Hortik abiatuz, gizarte-zientziak eta gizartearen zientzialariak agentzia gisa proposatuko dira, gu ere aktore garelara, eta hor lanaren nondik norakoak baldintzatuko dituen erreflexibitatearen tesiak duen garrantzia azpimarratuko da. Teknokrazia eta historiaren amaiera gaindituko dituzten kritika zorrozteko marko analitikoak behar ditugu, gero horiekin teorizatu eta espazioak pluralizatzeko (ikus: Larrinaga, 2001).
- Bigarren zatian, politikaren denbora desberdinak gizarte garaikidean elkarren artean bizitzeak eta elkarrekin jotzeak dituen ondorioak bilduko dira. Posmodernitatearen *impasse* kognitiboa gainditu ezean, eskusio zaharrek iraungo dute, eta denbora berriekin sortutako aukerak oztopatuko dira. Demokrazia modernoarekin ekoizitako politikak, hiritarrak, komunitateak hondoa jo badute (alderatu nolana: Albrow, 1996; Archibugi *et al.*, 1998; Cheah eta Robbins, 1998; Featherstone, 1990; Held *et al.*, 1999; Isin eta Wood, 1999; Mann, 1996; Rose, 1996; Weiss, 1998), politika eta bere joko-eremua ere birpentsatzea nahitaezkoa da (Guéhenno, 1999). Aldaketa soziala ahalbidetzeko, hegemonia berri eta desberdinetarako pentsamenduan lagungarriak izan daitezkeen aldagaiei arreta ipiniko zaie. Zertzelada eta flash modura gizartearen azterketa orok jaso behar dituen aldagaiak bilduko dira atal honetan, diziplina eta korrante desberdinez lotsarik gabe baliatuz. Helburua erreflexibitateaz baliaturik arazoak tematizatzea da, ikerketen agenda desberdinetarako bidea irekitzeko asmoz (ikus: Beck *et al.*, 2003).

- Ahalegin horren laguntzarekin, amaitzeko, ondorio gisa hipotesi bat proposatuko dut, hurrengo urteetan, praktika eta teoria politikoa bilduko liratekeen tradizio kritikoa birdefinituz, espazio berrietarako aztarnak atzematen baitira gizarte-mugimendu berriek landutako balio eta diskurtsoetan (Melucci eta Avlitzer, 2001; Smith *et al.*, 1997).

Laburbilduz, marko epistemologikoa izango dugu hizpide, azken atalean politikaren aukera posible bat eransteko, Gizabere erreflexiboarena. Nire lehen liburuan idatzitakoa ontzat emanaz, alegia, gizartearen diagnostikorako fundamentuak autokritika sozialaren teoria eta ikerketa lokalak uztartuz soilik gauza daitezkeela ontzat emanaz (Eizagirre, 2002), aukera berriak miatuko ditut. Datozen urteetan UEUko Soziologia sailean gabiltzanok eztabaida ditzakegun auziak direlakoan nago, hurbilketa analitikoa eta ikerketa lokalizatua mestizatuz proiektu txukunak egiteko. Orriok ikuspuntu horretatik irakurtzea da emankorrena, hala bibliografiaren tamaina ere, taldean arituz ekarpenak egin ditzakegula irizten baitiot.²

“Zôon politikon berririk ba ote? Gizabere erreflexiboa” izan da Mario Zubiagak proposatu didan izenburua. Animalia politiko berririk baden galdetzen bada, seinale da aurrez besterik egon dela edo egon badagoela. Bigarrenik, galderari erantzun bat ematen zaio: animalia politiko berria Gizabere erreflexiboa izango da, modernizazioaren absolutismoari eta koakzio ekonomiko, politiko eta teknikoei jazartzen zaiena; administrazioen hierarkiak eta kategoriak zalantzan jartzen eta iraultzen ahalegintzen dena; praktikarekin funtzionalki diferentziatutako gizartea eta azpi-sistema bakoitzaren legalitate objektiboa gainditzen dituen. Gizakia mehatxatu eta subjekturik gabeko arrazionalizazioa biribiltzen duen dialektika fatala (Horkheimer eta Adorno, 1967), gero fatalismo positiboa edo fatalismo negatiboa, ez da aukera posible bakarra. Baldintza bat bete beharra dago, ordea, gainerako aukerei tartea egiteko. Honakoa da baldintza: instituzionalizatutako kategoriak eta haien administratzaileak, hau da, kategoria-marko eta instituzio modernoak, politika eta sistema politikoa biak bat egiten dituen alderdi-sistema esaterako, ez direla normalaren esentzia bat. Aitzitik, aldi historiko batean materializatu egitateak dira. Horri, bigarrenik, ziurgabetasuna erantsi behar diogu (erreflexibitatearen potentzialtasunaz, ikus: Latour, 2003).

Modernitatearen proiektu epistemologikoa eta horri lotu zaion proiektu politikoa kritikatu dira, eta aukera politikoak eremu jakin batera eramango ditut: aukera posible desberdinak egon daitezkeen arren, lan honetan aldaketa soziala eta erreflexibitatea uztartuko dira. Ez dago absoluturik, modernitatea bera dago auzitan, modernitate-aukera desberdinak daude, baita Europako demokrazietan ere (Lash, 1999; Sahlins, 2000). Eta ezkereraino hedatutako toki komunek besterik dioten arren, herritarrek subjektu autodeterminatzaile gisa jarduteko aukerak egon badaude. Modernitatearen absolutizazioak herritarren norantza eztabaidatzea ekidin badu ere, arrazionalitate teleologikoaren ordena erortzearekin orain arte kanpo utzitako galderak gizarteratzen dira. Orobat, egitura modernoak eurak ekintza-prozesu eta aldaketa sozialaren objektu bilakatzen dira. Hori horrela, moderniza-

2. Bibliografiaren zati bat nire tesiari lotua da. Politika Gonbaratuen sailean, Zientzia eta Teknologiaren Gizarte Ikerketen Unitate Asoziatuan, CSICeko ikerlari bekadun modura Lancaster Unibertsitatean egiten ari naizen egonaldiak ahalbidetu dit gizarte-zientzietako ekoizpen akademiko garaikidera hurbiltzea.

zioaren azken bilakaerak iraulitako gizarte-esparruen eta gizartearen zientzia paralizatuaren arteko harreman ezkonezina zertan den ere ikusiko da, instituzio eta kategorია zonbiak gainditu eta aldaketaren diziplina berreskuratzeko asmoarekin (ikus: Urry, 2000a).

Lanean zehar egingo ditudan azalpenetan ondoko oharra kontuan hartzekoak dira. Bat: sozialdemokraziaren ildo batek gizarte indibidualizatuaz burutu dituen ekarpenak ontzat ematen ditut. Bi: implizituki nire lerroetako letra txikietan korronte liberalean pluralismora lerratzen den ideiak aurkituko dira. Eta hiru: halere, ezker-eskuin *cleavage* edo gatazka-ardatzaren gaurkotasuna azpimarratu nahi dut. Ez dago pentsamendu bakarrik, ez bada ezkerrean pentsamendu dominanterak makurtzen. Modernizazio erreflexiboarekin bat egingo dudan arren, ez ditut botere-harremanak estaliko. Uste dut hegemonia berrietarako lan egin behar dugula, politika berrasmatzea lehen pausua delarik, eta hori ezin gauza daitekeela modernizazio erreflexiboaren ekarpenetatik pasa gabe. Hori guztiori dela eta, politika eta haren esanahia fintzeko proposatuko dudan marko dinamiko eta erlazionalean erreflexi bitatearen tesiak ez dauka zertan bat egin bere jatorriko proposatzaileekin (Beck, 1996; Beck *et al.*, 1994; Giddens, 1996).

Lan osoan zehar metodologia hau erabiliko dut: atalaren helburu nagusia argitzeko, ingurune luze-zabalean barreiatuko naiz, askotariko auziak ukituz eta horiek aztertuz, hala samurrago nabarmenduko baita nire gaurko helburua eta hala errazago atzemango baitira gure biharko proiektuak.

2. Zôon politikon eta zôon lôgon

Lehen hurbilketa batean ez legoke arazorik politikaren honako esanahi honekin bat egiteko: politika posiblearen artea da. Are gehiago, ez legoke oztopo handiegirik hori zehazteko ere: elkarrekin bizi eta, gainera, ondo bizitzeko artea; beste animaliak ere elkarrekin bizi direla baina gizakiak, animalia politikoak diren heinean, elkarrekin ez eze ondo bizitzeko helburua dutela zioen Aristotelesekin, eta horretan datzala bizitza politiko. Horraino ez legoke arazo handiegirik ikuspuntu desberdinek bat egiteko. Baina ezaugarri horiek guztiak bilduko dituen eremua eta ezaugarri horietako bakoitzak duen esanahia ez da propietate-multzo zehaztu eta betierekoa, ezta ondo bizitzea guztiontzat berdina, ezta bizitzeko aukera guztiontzat berdina; politikarekiko egin daitezkeen irakurketa errepublikarrak (Arendt) hasieratik kritikatzearren, beraz, politikaren behin behineko definizio honetatik abiatuko naiz: polisean elkarrekin eta ondo bizitzeko posiblearen arte gatazkatsua. Politikaren esanahia eta kontzeptualizazioa ere eremu ideologiko luze-zabalean eta teoria politiko desberdinetan lerratzen badira, ikuspegi zeharo desberdinak elkar jotzen arituko dira politikaren esanahia eta instituzionalizazioa gauzatze bidean (ikus: Held, 1987).

Politika gauza publikoarekin lotua dago, eta publikoaren auziak eztabaidatzen ditu. Publikoak edo herritarrak, bestalde, hitza eta ekintza ditu, eta hitzak eta ekintzak gauzatzen ditu. Hori da polisean dabilenaren giza kondizioa. Horiekiko nolako irakurketa eta materializatzea, halakoa sistema politikoaren lehen ezaugarritzea. Gizaki politikoaren esfera publikoan dabilena litzateke horrenbestez, praktika politikoan hitza eta ekintza dituen (Rödel et alia, 1989). Alabaina, hitza eta

jarduera esfera publikoari lotuta daude, eta horrek definitzen baditu gizaki politikoak, gure auzia zehazteko pausoa esfera publikoa bera zertan datzan galdetzea izan liteke; zehazkiago, zein diren ondo bizitzeko hitza eta ekintza darabiltzaten diseinatzaileak, zein diren esfera publikoaren eremu ideologikoa marrazten dutenak eta joko politikoan eztabaidatzen dutenak, zein diren politikan dabilzanak eta zein polizien mendean: (a) zein diren ordena publikoa eztabaidatzen dutenak, (b) zein hori bermatzen dutenak eta (c) zein kanpo geratzen direnak; hots, politikoak, poliziak eta subditoak, hurrenez hurren. Komeni da ezaugarri bereizleak errepasatuz, ibilian-ibilian, gaiok zehaztea.

Horrek beste eztabaida baterako bide eman diezaguke: gizakia berez bada politikoa, baina gizakiek ez badute praktika politikoan parte hartzen, alegia, esfera publikoan ez bazaizkio hitza eta ekintza errespetatzen, populua zertara murriztua geratu den. Edo alderantziz, politikaren bigarren formulazio klasikoari helduz: herritarrari subjektu izateko behar dituen eskubide zibil eta politikoak aitortu ezean, zerk definitzen dituen herritarra, eremu soziopolitikoa eta sistema, zer den naturala eta zer erabakitakoa, eta nor den definitzailea. Halaber, eta auzia gure garaietara hurbilduz, ekintza zilegi bakarra hauteskundeetan parte hartzea bada (Schumpeter, 1942; Lipset, 1960), apenas aitortzen zaizkion datozen lau urteetarako eremu pribatura bildu denari askatasuna eta duintasuna: hauteskundeen emaitzekin lau urterako instituzioak naturalizatzen dira.

Diskurtso publizitatuaren estilizatzen diren hitz-jarioak baztertu eta jarrera kritiko bat hartzen badugu, publikoaren esfera arras estua dela frogatuko dugu. Herritarren toki naturala esfera publikoan hauteskundeak dira. Politikaren subjektuak, berriz, pribilegiatu batzuk soilik dira, publikoaren esfera mugatu den toki-eremuan parte hartzen duten haiek, eta, gaur-gaurkoz, betierekoa den ordena publikoa eta arkeologia politikoa kudeatzera mugatzen direnak, mugimenduan dagoen gizartearekiko oposizioan. Baina gure zehaztapenean oraindik beste urrats bat eman ahal dugu: politikaren pribatizazioak eta suntsiketak, interes-taldearen liberalismora mugatua utzi du gauza publikoa. Alderdi-sistemen defizit demokratikoak ez eze, politikaren teknifikazioa, burokratizazioa eta pribatizazioa ere nagusitu dira. Politikaren subjektuak elite gobernatzailerak eta, bereziki, korporazio ekonomikoak dira, Estatu pribatu gisa jardunaz. Herritarrei aukera bakarra merkatuan emango zaie, baldintza batekin: kontsumoaren subjektuak izatea. Gizarte garaikidean subjektuen hirugarren aldaera poliziek eratzen dute, parlamentua eta merkatu neoliberala zalantzan jartzen dutenak, neutralizatzeaz edo despolitizatzeaz arduratuko direnak.

Azalpenaren une hau erabakigarria da. Ordezkarien eta ordezkatuaren artean hitzartutakoa apurtu da (Guéhenno, 1993): ordezkariak duin jokatuz ordezkatuaren askatasunak bermatuko zituen hitzarmen ilustratua apurtu da. Neoliberalismoaren joan-etorrian berregokitzen dira harremanak, eta erreakzionario berriak sare komertzialean gizakiak eurak ere diseinurako objektu bilakatzen dituzten administrazioailei posmodernoak dira. Atzo Jainkoak, Izadiak, Arrazoiak, Estatuak jokatutako papera hartzen du orain Merkatuak, bera da eremu sakratua, eta bere inguruan mugitzen den orok egia eta dogma batzuk onetsi beharko ditu. Eta erabakimen hori hartzearekin batera, bigarren baldintza bat bete beharko da: ekinbide horretan jarduteko baliabide materialak izan beharko dira.

Politikaren analisisian bi dira zehaztu beharreko auziak: batetik, praktika eta bizitza politikoa; bestetik, hitza edo pentsamendua eta bizitza politikoa. Hori, gainera, testuinguru jakin batean gertatzen da, informazioaren gizartean (ikus: Lash, 2002). Politikaren suntsiketa eta politikaren itzulera nahi baditugu aztertu, ezinbestekoa bilakatzen da haren bi ardatzei jaramon egitea, praktikari eta hitzari. Gizarte garaikidean hitza eta ekintza eremu ilunetara mugatuak geratu dira, herritarrengan joera bikoitzeroako hautuak dakartzana: iluntasunetik isiltasunera, edo iluntasunetik politikara. Bigarren hautuarekin bat egingo badugu, gaurko egoera ahalbidetzen duten aldagaiak ezagutzea komeni zaigu, botere-harremanak kritikatzeko, hitz semantizatuak ezagutu eta erreformatzea, eta garaira egokituko den pentsamendua sustatzeko ekimenean gure ekarpena egitea analista gisa. Gure ekarpenak lekutua egon behar du praktika politikoaren hurbilketa errepresentazionalak lokala izan beharko du.

Horretarako, aurrenik, informazioa lehen mailako baliabidea denez gero, garai batean baliabide materialak adina, erreferentziarako kategoria-markoak fintzeko nahitaezkoak diren oniritziei tokia egingo diegu ondorengo orrietan. Errealitateak izendatzea egin behar nagusi bilakatu bada, gizarte-zientzialarien garrantzia eta euren tresnen auzia ekidin ezineko pasartea da. Hori are garrantzitsuagoa da, beste ekarpen bat dela eta. Izan ere, hegemonia eta alternatiba berriak exigentzia teorikoa eta soziala izateaz aparte, politika berreskuratzeko balioak eta diskurtsoak oso garrantzitsuak dira (Fishkin, 1991), botere- eta instituzio-harremanak bezain inportanteak. Gizartearen bilakaera pentsamenduaren mailan ere jokatzen den heinean, azpiatal bat irekiko da zehaztapen batzuk egiteko. Erreflexibitatearen tesia ere marko horretan ulertu beharko da.

2.1. Erreflexibitatea: politikaren errepresentazioak eta praktikak

Gizarte modernoaren ezaugarri bereizlea da gizartearen irakurketa soziala, hau da, kontzeptu eta errepresentazioen bidez gizarteak irakurtzea. Eskuarrean ditugun kontzeptuak ez dira neutralak, balioak dituzte euren baitan eta, neurri horretan, gizartearen bilakaerak baldintzatzen dituzte. Erreferentziarako kategoriek askotariko errepresentazioak konfiguratu dituzte, eta errealitateak deskribatzeaz gain errealitateak sortzen dituzte (ikus: Hacking, 1999). Ondorioz, gure praktika zientifikoek ezagutzak ekoizten dituzten heinean, aukera posibleen ekoizpenari arreta ipini behar zaio; halaber, noski, zientzialariak jakin behar du ardura etiko eta politikoa duela eta bere aukeretako bat izan daitekeela baliabide kognitiboak ahulenen esku ipintzea, horrela errealitate neutralizatuak izendatu eta politizatzeke (Melucci, 2001). Lan honetan postura hori hartuko dut.

Zientzialari askok testuen absolutizazioa proposatu dute, beste batzuek, berriz, errealaren ideologizazioa: batzuentzat dena konstruktua hutsa da, hitz-jokoa, egia bakarrak testuetan jasoak leudeke, fikzioan, simulatzen dugun hartan; besteentzat naturala eta erreala hor egon dago, *as given*, eta aukera bakarra litzateke bere isla teoriara pasatzea, hortik transposizio normatiboak eta gobernu-politikak ahalbidetzeko. Bigarren horren gehiegikerien aitzinean ekoitzi zen lehenengoa, eta urteetako bilakaerek beste muturreraino eraman dute proposamen teorikoa (ikus: Keenan, 1997). Gaur, ordea, marjinetatik hirugarren ikuspegi bat proposatzen da: bateko eta besteko determinismoak gainditze bidean, teoria eta praktikaren arteko

tentsioari eta hor ahalbidetzen diren espazio berriei jaramon egitea, esaterako, teoria eta errepresentazioei adina balio, aniztasunari, ziurgabetasunari, botere-harremanei, gizarte-gatazkei, instituzionalizazio asimetrikoei esleitzea.

Zehaztapen horrek arazoen agenda jakin bat irekitzen du, analistaren eremuari dagokiona. Gizarteen errepresentazioak ez dira munduaren irudi leialak, ez dira munduaren isla, eta analistaren ekinbideak gidatzen dituzte. Gizarte-zientzietan eztabaida epistemologikoa puri-purian egonik, politika birpentsatu eta botere-harremanak aldatu nahi baditugu, ezin diezaiokegu horri muzin egin. Eztabaida metateorikoaz kontziente bagara, onartuko dugu ikerlariok agentzia bat gehiago garela gizarte-borrokan.

Baiki, komunikazioa ilundu eta egitateekiko gertutasuna ekiditen duten printzipio abstraktuen erabilera nagusitzeak hipotesi larriena ere aukera erreala bilakatu du eta une oro gabiltza nobedade salbatzaileak balioztatzen. Informazioaren gizartean, bestalde, pentsamendua zirkulazio etengabea dago; herritarren ezagutza-iturria ez datza eguneroko esperientzietan, baizik sistema multimediatikoek artifizialki eraikitako testuinguru soziokulturaletan. Gure pertzepzio eta irudiek imaginario hutsa izateari utzi eta eurak bilakatu dira erreal. Hein handi batean komunikabideak dira politikaren eremu berria, horrek dakartzan ondorio guztiekin; informazioa bilakatu da subjektuaren aukera bakar: ekintza eta hitza posible izateko beharrezkoa da informazioa bai politikan bai Merkatuan. Hainbestekoa da horren garrantzia, ezen dena informazioa dutenen eztabaida teknikora murriztua geratu dela, ordena publikoa bermatu eta bere kudeaketara; *cleavage* bakarra ez da goikoak/behekoak, horri barrukoak/kanpokoak eransten zaio. Era berean, hegemonia semantikoak gero eta gehiago jokatzen du irudiarekin, gaurko arma berriarekin, eta jakin badaki gertakari mediatiko berria beldurra dela.

Testuinguru horretan sortzen zaio analistari tradizio kritikoari jarraipena emateko eta demokraziaren teoria politiko eguneratua lantzeko aukera. Nire aldetik, praktika zientifikoa errepresentazioen ekoizpen gisa kontsideraturik, aukera posiblei tokia egingo dien marko batean aintzat hartu beharreko ideiak aurkeztuko ditut. Helburua marko integratzailea lantzea da, baina ez adiera totalitarioan, alegia, marko bat proposatu eta gero aukera bakar horretan gainerakoak integratzearen adieran. Ahalik eta errealtate pluralena errepresentatuko duen marko teorikoari tokia egin behar zaio. Horrek baldintza bi ditu: maila teorikoan determinismoak ekidin eta maila praktikoan pluralitateari leku egitea (Bobbio, 1984). Errealtate desberdinak izendatzeko gure ahaleginak soilik ahalbidetuko du teoria on bat eta gizarte hobe bat. Helburu kritiko horrek komunikazio eta elkartasun eredu berriak eta garaiko gatazka erreal nahiz imaginarioetara egokituak izango diren tresna analitikoak eskatzen ditu.

Zientzialariak ez eze, tresna analitikoak ere agentzia bat dira, ez dira errealtatearekiko independenteak, eta uneoroko elkarrekintza dago errealtate soziala irudikatzearen eta portaerak kategorizatzeako moduaren artean. Gizarteaz egiten ditugun errepresentazioak zirkulazioan ipintzen dira praktika sozialei esker, hauek haien beharra dute eta elkar baldintzatzen dute. Gizarteak ez dira errealtate ontologiko objektibatuak, gizarteak ez dira hor egon dauden objektuak; kategoriak ere ez dira neutralak errealtateaz egiten ditugun irakurketekiko. Hori da

modernitatearen ekarpena: gizartearen errepresentazioak gizarteak egiten ditu, elkarrekintza bat dago kategorian eta errealtatearen artean. Alabaina, ondo ulertu behar da esan den hori: batak bestean eragiten du, ez dira independenteak baina ezta ere bata bestearen menpekoak.

Izan ere, modernitatearen printzipio legitimatzaile bilakatu da gizakia eta, zehazkiago, administratzaileak errealtatea diseinurako objektu gisa tratatzea (adibiderako: Bauman, 1989); horrexegatik, askok kritikatu du modernitatea eta politika teologia sekularizatua direla, absolutua orainaldian gauzatu dela (*Leviathan*, 1651). Biak ala biak, kategoriak eta praktikak, batak bestean eragiten du, batak bestea baldintzatzen du, eta zailtasunak ipintzen dizkiote errealtatea bakoitzaren nahieretara moldatzeari. Dena ez da asmazio soziala: konstituzioarekin hasiera absolutua planteatzeak, edo neoliberalismoarekin gizartearen balio axiologiko bakarra ekonomikoa eta gizakiaren helburu bakarra maximazioa bultzatzen dituzten marko teoriko eta konstituzionala planteatzeak, esaterako, erresistentzietan egingo dute topo, beste horrenbeste teknosferak biosferarekin, eta abar; orobat, krisi sistemikoei erakusten digute mugak egon badaudela (Taylor, 1996; O'Brien eta Penna, 1997). Alabaina, dena ez da errealtate mugiezina: objektibatuak edo esentzialak badira aztergai ditugun errealtateak, giza taldeak, etniak, ez dago errealtatearen ideologizazioa besterik, intelektual askorengan etsipena eta boterera hurbiltzea eragin duena; edo ez dago egitate jakin horretan fundamendatu eta transposizio normatiboak, gobernu-politikak eta Estatuaren egituraketa gauzatzea beste aukerarik, beste errealtateak nahiz gatazkak eskulitu eta guztiaren objektu, ardatz, legitimatzaile bilakatuz. Adibideak sobera ondo ezagutzen ditu irakurle euskaldunak; gainerakoan, adibide globalak eta transnazionalak eranstean ahal dira.

Zehaztapen horrek, ordea, beste batera garamatza. Zientzialariak eta euren tresnak botere-harremanen, gizarte-dinamiken, instituzioen ondoan agentzia bat gehiago dira. Eta, ondorioz, ezin muga gaitetzke kategorian-markoen azterketak eta eztabaida kontzeptualak burutzerakoan auzi sintaktiko eta semantikoetara: gizarte-praktikaren auzi pragmatikoei arretoa ipini behar zaie. Ezin gaitetzke printzipio abstraktuak balira bezala aztertzer mugatu. Aitzitik, modernitatean marko teoriko eta konstituzionalen baitan tokia ez duten esperientziak eta errealtateak neutralizatu egiten dira; dauden markoek definitu modukoa izan beharra dago, ez dago beste aukerarik. Modernitatean unibozitate metafisikoarekin guztia ondo lotuta egon da, dena dago ordenatuta eta determinatuta, ziklo biografikoak definituta egon dira, bakoitzari dagozkion tokia, funtzioa eta espazioa zehaztuta egon dira. Modernitatean lanaren gizarteak, familia nuklearrak, Estatu-nazioak, zientzia eta teknologiarekiko ziurtasunak eta errugabetasunak, arrisku ekologikoekiko abstrakzioak definitu gaitu eta definitu du guztia (Beck, 1986); aldaketa bakarrak, mendebaldeko gizarteetan, paradigma industrialak eta kapitalistak instituzionalizatu gizarte-ereduan izan dira (Giddens, 1984), eufemistikoki kapitalismoaren zuzenketa eta demokraziaren erreforma gisa aldeztu direnak.

Alabaina, ez da egokia gu neutralizatzen gaituztenak Konstituzioa eta Merkaturia direla salatzea; jarrera kritikoa hartuagatik ere, badago printzipio abstraktuetan gaitzeko arriskua: Estatua, kapitalismoa, mundu-sistema, eta beste. Gizarte-zientzietan gabiltzanon irakurketa eta analisisiek zehatzagoak izan behar dute.

Intelektualen mundu imaginarioan fundamentu enpirikorik gabeko printzipio abstraktuak nagusituagatik ere, diskurtso horiek egitate errealak dituzte: pentsatu besterik ez dago, bake- eta kanpo-ordenan, bakean, askatasunean, segurtasunean. Eta, gainera, une jakin batean ari dira nagusitzen: politikaren teatralizazioak, suntsiketak eta pribatizazioak diskurtso arinak eta sinpleak, hots, dogmatikoak eskatzen dituztenean, eta politikaren denbora garaikidean errealitate nahiz esperientzia berrien agerpenak erronka berriak planteatzen dituztenean; hain zuzen ere, balizko aldaketa eskaini ahal dutenak topografia politikoaren alderik ilunenean zokoratzeko. Izan ere, modernitatearen epilogoan tresna analitikoek erantzun ezin dieten aukera berriak zabaltzen dira, diskontinuitate kualitatiboaren hipotesia sendotzen dutenak, eta gatazkak erakundeen baitan planteatzen dituztenak, erakunde-politiken garapenerako alternatiba eta printzipioen artean. Hori da modernizazio erreflexiboak tematizatu nahi duen gizarte konplexua, eta hori da modernizazioaren zutabe nagusiak kritikatzeko azken urteetan ekarpen esanguratsuenak egin dituen korrontea (aipatu diren gaien teorizazio gisa: Adam, 1998; Bauman, 2000; Beck, 1999; Eizagirre, 2002; Giddens, 1991; Irwin, 2001; Urry, 2000b).

Praktika eta errepresentazioen artean, ezagutza eta esperientzien artean, haustura bat bizi dugu: gizartea mugimenduan dago, luzaroan neutralizatuak egon diren errealtateak lehertu eta plazaratu egin dira, oro har, bloke-politikak petrifikatuta eduki dituenak. Orain ez dago garbi bakoitzaren tokia, funtzioa, espazioa, etenak eta hausturak ziklo biografikoaren ezaugarri behinena dira, ziurgabetasunaren gizartea da gurea; eta, bigarrenik, krisi sistemikorako zantzuak nagusitu dira: krisi ekologikoa, ekonomikoa eta soziala. Latentzian egondako gatazkei, gaur fenomeno sozial berrien agerpenekin eszenatoki garaikidean sor litezkeen gatazkak erantsiz gero, ulertu ahalko da gizartearen errepresentazioek gaur duten garrantzia. Castells-ek, ez alferrik, gaurko gizarteari informazionala deritzo; gizarte-antolakuntzaren euskarria bilakatu da informazioa: informazioa sortzea, prozesatzea, zabaltea botere-iturri dira (Castells, 1996-1997; Rifkin, 2000, Scott, 2000; Strathern, 2000). Gaur gizarte-gatazkak neurri handi batean informazioaren ingurukoak dira eta gizarte-mugimenduak aitzindari dira.

Hori da zientzialariek euren marko analitikoak findu eta gizarte indibidualizatuaren neurriko zôon politikon baterako saiakeran aurkitzen duten egoera. Modernizazioaren ulerkuntza soziologikoak aztertu beharrekoak dira hala egiturazko aldaketak nola horien eta subjektuen arteko harremanak: teknozientziak, neoliberalismoak, indibidualizazioak, globalizazioak nola konfiguratzen dituzten errealitate berriak; botere-harremanek, instituzioek, gizarte-praktikek, diskurtsoek, balioek nola elkar eragiten duten herritarren bilakaeretan.

Politikaren denbora berrietarako pentsatuz soilik ahalko dira gauzatu lan horiek. Teoria eta errealtatearen gainean modernitateak eta haren azken teorikoek egindako irakurketek zaila dute zeri heldu, gizarte-aldaketek erakundeen krisiak jasotzen dituztenean. Era berean, ordea, kategoria, marko teoriko eta iritziak aldatu ezean, gizartearen bilakaerak baldintzatuko dira: modernitatean ekoizitako teoria, oniritzi, hitzarmen, botere, instituzioek posible egin dute espazio eta egin-beharren definizioak modu orekatuan bermatzea, jarraikotasuna oztopa dezaketan errealtateak, gertakariak, erabakiak erakundeetako bitartekoekin eran-

tzunez, bai integratuz bai neutralizatuz. Alabaina, gaurko aldaketek teoria, oniritzi, hitzarmen, botere, instituzio moderno horiek jartzen dituzte zalantzan. Eta egoera horren luzatzeak, batetik, krisi sistemikorako joera sendotzen du, eta, bestetik, aukera posibleak ekiditen ditu. Tipologia eta eskema teoriko zaharrek errealitateak datu, kategoria eta egitura sozial jakinekin biltzen dituzte, aukera ekonomiko, politiko, sozial, konstituzional jakinekin. Lotura horretaz ohartu ezean, gertakarien bilakaera errealekiko kritika morala egiten ahal da (adb.: Norris, 1992), baina praktika garaikidearekin lotuta dauden eztabaida zientifiko nahiz sozialek ezer gutxi eman dezakete. Eztabaidarako agenda eta ikuspegia baldintzatuta daude, eta politika nahiz zôon politiko berria nahi baditugu aztertu, formulatu eta sustatu, marko epistemologiko berri bat ere beharrezkoa dugu (ikus: Oakeshott, 1967).

Marko epistemologiko berri eta zabalagoan kokatu behar dira irakurketa eta kritikak: ikuspegi morala ez eze, beste balio andana bat ere kontuan hartu beharra dago, baita balio horietako bakoitzak mundu globalizatuan izan ditzakeen harrerak ere. Balio ekonomikoak, politikoak, ekologikoak, militarrek, erlijiosoak, epistemikoak, moralak, sozialak jaso behar dira gizarte gatazkatsu, individualizatu eta globalizatuan. Balio horiek, bigarrenik, ezin daitezke bildu auzi diferentziatu gisa, balio bakoitza bere aldetik, gizartearen irakurketarako filosofo moralak, biologoak, politologoak, ekonomistak, ekologoak, soziologoak, bakoitzak dagokion lan esparruan jardunaz. Errealitatean diziplina horiek ikergai dituzten auziak sarri espazio berberetan trukutzen dira; funtzionalki diferentziatutako gizartearen iruzurra simulatu eta teorizatuko genuke. Hirugarrenik, gizarteak multikulturalak dira, askotariko zibilizazio eta mundu-ikuspegiak daude, eta gizarte horietako bakoitzak ez ditu etapa zehaztuak, determinatuak iragan behar, ezta ongiaren kontzeptzio bera asumitu behar ere; baina ez diote horregatik elkarri eragiteari uzten, are toki berdinean bil daitezkeenean gaurko gizarteetan. Laugarren kritika bat erantsi ahal dugu: kontzeptu batek ez ditu propietate jakinak, ontologia sustantzialista bat; oniritzi epistemologiko zabaldu batek dio kontzeptu bat tasun-sorta batek definitzen duela, baina ikuspegi horren aukera bakarria tasun zehaztu horiek bermatzea da, eta tasun horiekin bat egiten duten errealitateak soilik onestea. Kritikak ontzat ematen baditugu, kontzeptuak testuinguru batean izango du lekua, aldakorra den testuinguruan, eta beste testuinguruekin harremanetan. Horrek ez du esan nahi hitzen semantika infinituraino zabal dezakegunik, alde bakoitzak muturrera tira eta bakoitzaren irakurketa posiblea kontzeptu jakinaren baitan lekutzen denik: kontzeptu baten izaera graduzkoa, irekia, zehaztugabea izatetik ez da ondorioztatzen denak balio duenik (funtsezko autokritika, kultura- ikerketei dagokienez: Butler, 1998). Harreman dialektiko batean lerratzen da, kontzeptu batek historia propioa du, denbora berrietara zabaltzen dena, beste kontzeptuekiko ere bereizten dena, fenomeno malgu eta aldakorren eremuan soilik duena esanahia.

Zôon politikon nahiz politikaren esanahia horrela ulertu ahal dira soilik, horrela soilik landu ahal dira zôon berriaren gogoetak. Politika ere entitate epistemiko ireki modura hartzen dugun heinean, fenomeno jakinak bilduko ditu, baina fenomeno horiek arras bestelako kontzeptu nahiz horien fenomenoekin harremanetan jartzen badira, edo fenomenoak denborarekin aldatzen badira, politika ezin daiteke aurrerari betierekoekin aztertu. Politika, beraz, gizarte onaren bidean ikuspuntu desberdinek eta denbora berriek irekitako harreman-multzoak errepresentatuko dituen prozesu teorikoan ulertu behar da.

Aukera hori oztopatzen da bloke-politikek petrifikatuta eduki duten errealitatea eta modernitatea ekoitzi dituzten teoriak, egiturak, irakurketak mantentzearekin. Aldiz, azpiatal honetan aurkeztu diren kritikak ontzat eman eta bideak irekitzeko ahaleginak politikaren ikerketari, errealitateen hurbilketari, aldaketari aukerak zabaltzen dizkie. Politikaren aukera posibleak arazo eta gertakari berrien markoan gauzatu behar dira, jakitun izanik politikaren irakurketa nahiz hurbilketa modua ez daudela balioetatik libre: balio epistemikoa bera ere gainerako balioen ondoan kokatu behar dugu, are zientzialariak ere agentzia bat gehiago direnean. Nolanahi, horrekin ororen gainetik mezu bat igorri eta ohar batzuk egin nahi ditut: ez dago hasiera absoluturik, denborak eta egitateak mozten dituen Konstituzioa esaterako; errepresentazioen *continuum* dinamiko bat dago, demagun euskal etnia; modernitatearen iraganbide osoa eta gerora begira egindako proposamenak nahiz hartutako posizioak baldintzatzen du zientzialariaren ikuspegia; zientzialariak bere praktikan errepresentazioak sortzen ditu eta hauek, berriz, errealitate aukera berriak: esanahien munduak ahalbidetzen dira. Hori ekidinezina da. Eta ezagutu behar ditugu errepresentazioen muga kognitiboak ere; orobat, ikerlariak dituen balioak eta helburuak.

Ezagutza eta ikerketa ere aukera posibleen produkzio-eremuan kokatu behar dira, aukera horiek sarri ziurgabeak eta indeterminatuak izanik. Ikerketa biomedikoa, ziurtasun-esferen bukaera, desoreka ekonomiko eta soziala, espazio eta fenomeno berrien sorrera, edo galdutakoa berreskuratzeko nahiz babes berrietarako diskurtsoa objektibizatu, errepresentatu eta eztabaidatzeko ahalegina, kasu horietako bakoitza zabala eta plurala ez eze, indeterminatua eta dinamikoa ere bada.

Historiaren irakurketa positibistak eta gizarte-ikerketa estilizatuak gainditzeko ahaleginak agenda berriak irekitzen ditu, arazo eta aukeren agenda berri bat, ez soilik zaharren berregituratze bat. Nik proposatuko dudaren arabera, indibidualizazioa eta modernizazio erreflexiboa gizarte-zientzien eremu berria izan daitezke, errealitate eta harreman berrien arketipoa, hots, mestizoa, aldakorra, indeterminatua. Gainera, ikuspegi horrek errealitateak eta harremanak nola aldatzen ari diren aztertzea proposatzen du, praktika eta errepresentazioen aldibereko harremana, errealitate eta teorien espazio posibleak nola sortzen doazen ikertzea ahalbidetuz. Onartu egiten da biak ala biak ez direla independenteak, eta biek ere aukerak zabaltzen dituztela. Gizarte garaikideen konplexutasunaren ulermena, kudeaketa, eraldaketa askotariko agentzia eta gertakariekin soilik egin ahalko da, konplexutasuna tematizatzearekin, anibalentziarako teoriekin. Eta ohartzen gara, helmuga ez eze, teoria kritikoaren fatalitatea gainditzea ere posible dela.

3. Indibidualizazioa

Egoera aldatuko bada, atzean uzten ari garenetik ikasgaiak atera eta aurrerantzean datorkigunari erantzungo badiogu, teoriak eta errepresentazioak nahiz botere-harremanak aldatu behar ditugu. Erreferentzia etikoak ezagutza moralarekin badatoz ere, gaur alderantziz egiten dugu: ez dugu ikasten, eta gizarte-bizitza etikak fundamentatzen du, moralitate ilustratuaren aburuz, Konstituzioak eta merkatuak; gero praktika politikoa legebiltzarretan egingo da, praktika komertziala, berriz, kapitalismoaren oihanean, beti ere, ordena publikoa eztabaidatzeko eta kontsumorako baliabideak dituzten subjektuen artean. Bi eremu sakratuak dira,

ordena naturalizatuak, eta ez dago aterabiderik: hor tokia ez duena, hortik begiraturiko utopia, giza bakea eta askatasuna urratuko dituen eremua izanen da, mehatxu espektrala. Demokrazia prozedimentura mugatu da, eta bere erabilgarritasuna giza bakea eta askatasuna bermatzen dituen neurrian soilik berretsiko da; toki naturalean ez dagoenari, berriz, posiblea ezinezkotzen dela irudituko zaio. Ulergarriak dira, gero, mundu intelektualetik sozialerako bide luzean gaur nagusitu diren jarrerak eta portaerak.

Garrantzitsuak dira goiko lerroetan eskaini oniritzi kritikoak. Teoria eta praktika-ren artean egin ditudan kritikak testuinguru honetarako egin ditut preseski, gure denborak mugiezin eta amaitu gisa estilizatzen dituzten irakurketei buruz egiteko hain zuzen ere. Bigarrenik, aldaketaren beharraz ohartzeko proposatu marko epistemologikoa gutxi ez dela, metodologia berriak frogatzen digu orainaldiaren ezaugarriak segurtasunen akabera, fundamentu ahulen beharra, individualizazioa, ziurgabetasuna direla. Hirugarrenik, posmodernoen ekarpena ere gogora dezakegu: modernitatea eta berarekin ekoitzi teoriak nahiz instituzioak kontingentzia historikoa dira. Laugarren oharra metropolietan gizartearen barruan eta kanpoan geratzen ari direnen haustura izan daiteke, goikoak eta behekoak nahikoa ez direla. Eta inozentzia politikoa ere galdu dugu: badaukagu iraganaren berri eta badaukagu orainaldiaren berri. Etorkizunerako aukera posibleak ezin daitezke datuok baztertuta egin, eta proposamen orok izango du idealaren jarrai-kortasuna oztopatuko duen gertakaririk, adibidez: konstituzioetan tokia ez dutenak; Merkatura sarbiderik ez dutenak; teknozientziaren determinismoa gezurtatu eta eredu, diseinu, praktika desberdinak proposatzen dituztenak; maximizazioa ez den bestelako balioak aurkezten dituzten gizakiak eta ekonomiak, esperientzia errealean berri emanen duten informazioak, batzuk aipatzearen.

Publizisten ikerketetan, ordea, ez dira ideiak jasotzen, eta neutralizatu nahi izaten dira, bai euren txostenetan bai gobernu-politiketan. Gehiengo isilek eta sistema-eredu horretan oreka topatu dutenek bat egingo dute pentsamendua lokartzen duten abstrakzioetan: askatasuna, terrorismoa, bakea, islamismoa, segurtasuna, eta nominalismo arinekin zernahi barreiatuko da guztion kontzientzietan. Diskurtso historikoek guztia definitua izaten dute, ezagutzarako eta jardunerako erreferentzia irmoa, hitza definitua eta ekintza zehaztua, nahikoa delarik uste horietara itsastea, arroken modura zoru egonkor eta iraunkorrera lerratzea; politika eta ordena publikoa biak bat. Bigarren kapituluan politika eta esfera publikoa zehazterakoan esan bezala, ordena publikoaren diseinatzaileez gain, diseinuak ere itxita daude. Ariketa Espiritualetan nola, askatasuna dugu hautuak egiteko, zoriontasuna opatzen zaigu, baina orok daki konstituzio nazionalistatik eta biolentzia kontsumistatik at geratzen dena zigortua izango dela, moralki koakzionatu eta legalki penalizatuko dela, kontzientzia txarra muga zehaztuek baldintzatua egonik; irudika bitez adibideak.

Alta, historiaren amaiera aldi historiko baten amaiera bezala ulertu beharko genuke. Denbora berriak dira gaurkoak, eta ez alferrik petrifikatuta egon diren auzien leherketa, aukera posibleen unea eta espazio berrien garaia. Bloke-politika erortzearekin bat, egundo halako marketing antolatua izan ez duten liburu bi agertu dira denbora tarte laburrean eta biak ere bertsiio laburtuak dituzte aurrekari gisa egunkarrietan nahiz aldizkari zientifikoetan: etorkizuna idatzi, ezarri, definitu

izana; politika lotua geratzeko gizarte-eredu batera eta instituzio-eredu batera lerratzea; gizartea orain ere diseinurako objektu kontsideratzea, Fukuyama eta Huntginton baten idazkietan topatzen da; diskurtso historiko baten amaierari lotuak daude. Edo, orainaldia ezustearen tokia eta espazioa izan daitekeenean idatziak daude: harresi berri dira; zahar berria dena orain akademikoki kontzeptualizatzen da: historiaren amaiera, edo zibilizazioen talka.

Era berean, ordea, kezkarria da pentsamendu bakarrarena, hots, ezkerrek asmatu duen gezurra, kritika autokonplazientea nahiz ezkerren porrota eta bertigoa islatzen dituena. Paradigma industrialia eta paradigma kapitalista osorik erortzen ari dira, krisia sistemikoa da, paradigma horiek bermatu proiektu politikoak ere erortzen ari dira, neoliberalismoa eta sozialdemokrazia, ez soilik sozialismo totalitarioa. Ezkerrek hondoa jotzen du, gainera, zentrorra jotzen duenean, ezker nahitaez sozialismo errealearekin lotzen duen kritika ezkerrek berak onartzen duenean: orain, antza, ezin daitezke diskurtso baten balioak izan berdintasuna, hegemonia, sistemaren kritika. Politikaren denbora berrietara egokitzeko zailtasunak ditu ezkerreko pentsamenduak, eta politika modernoaren dogmek itxi eremua bilakatu zaio aukera bakar.

Orainaldiarekin geratu gara larrugorrian. Iragana ere geratzen zaigu, eta etorkizuna ezin daiteke hutsetik egin. Politika, estatu-arrazoia, gizakiaren ordenamendu biolentoa hiruak bat egiten dituen lotura hautsi behar da, berrekoizpena ekidin behar da, alegia, politikaren subjektuak herritarrak izango diren eredurako pausuak bultzatu behar dira, eta ez dirudunak, poliziak, administratzaileak diren hau bermatu: hori da beste mundu bat posible dela eta Iraq erasotzerik nahi ez dugula errebindikatzea, hori da herritarraz ezer espero ez duen diskurtsoa iraultzea, hori da subjektu autodeterminatzailea. Politika gutxien esku uzteak eta gutxi horiek ziurtasunez jokatzek erabaki oro despolitizatzen eta santifikatzen du, masa arte-lan total baten emaitza bilakatuz. Sobiet Batasuna ere izaten ahal da hori, Orwell batek ikusi nola. Alteritate, ziurgabetasuna, ezagutza, gatazka daude alde batean; sumisoak, idiotak, gidatuak, helmugak bestean. Hori da politika kritikoak alde batera eta bestera bereizten dituen.

Datozen lerroetan *impasse* kognitiboa ulertzen lagun diezaguketean zertzeladak isuriko dira, hiru zati laburretan banatuta. Lehenengoan, modernitatearen proiektu epistemologikoa eta politikoa nola bilakatu den aipatuko da, eta horri nola erantzuten zaion maila teorikoan. Bigarrengoan, ziurtasunen erorketak gizartean sorturiko giroa kritikaturiko da, aldaketarako politiken etsipena eta eskuinaren politika, hots, pentsamenduaren paralisia eta gizartearen militartzea. Hirugarrenean, kontratu berriak hitzartu eta indibiduo autodeterminanteen denboretarako aukera posible bilerik baden ikusiko da.

Pentsamendu paralizatu eta ekintza polizializatuan orainaldi hauskor, iragankor eta infinituak gizartearen auzi, aldagai eta elementuak irakurtzea zailtzen du. Eguneratua ez dagoenaren pekatua dirudite irakurketak lotzeak, egoerak kritikatzek eta azalpenak eskatzek, atsedenaldirik kontzeptual eta politikoaren denboretan; behialako ipuinek porrot egin dutelarik, ez bide da komeni ahalegin berriak egitea, gutxiago iraultzaileek etika, gizartea, estetika dekretuz aldatzeko ohorea badute gaur, edo irakurketa posible guztiak toleratu behar badira, aingerutiarrak nonbait.

Nik beste iritzi bat dut: porrot egin dutenak kanpotik ezarri teoria ordenatzaileak izan dira, bi aukera proposatzen dituztenak, guztiok ere alde batean edo bestean ipintzera derrigorturik, batarena osoki edo bestearena osoki aukeratzera derrigorturik. Datozen azpiataletan laburki elementu solteak lotzen hasteko modu bat proposatuko da. Ondorengo urteen bilakaera posiblea zein izan litekeen aipatuko da, eta aldaketarako politikak kontutan hartu beharko dituzten aldagaiak bilduko. Horretarako gizarte posmodernoa orientazio teoriko gabeak, heterogeneoak, fragmentatuak, diziplinez haraindikoak izanik, gure teoriak ere tokiko harremanen espektro gisa ulertu beharrak daude, truke-eremuei arreta ipiniz. Horrek, ordea, ez du esan nahi teoriak eta irakurketak ezin daitezkeenik praktiken irakurketatik orokortu eta lotu, edo dominazioak desagertu direnik, edo modernitatearen diskontinuitate kualitatiboa, erresistentzia, ekoizpen-moduen kritika ezin uztar daitezkeenik. Indibidualizazio-prozesuari eman bideragarritasunaren arabera izango da hori.

Datozen orrietan jasoko diren ideiak sobera ezagunak direnez, eta lehendik ere landuak dauden gaiak izanik, aipatu besterik ez dira egingo: azpiatal hauen berezotasuna ikuspegiak biltzean, errealitatera hurbildu eta gogoetak burutzean, horiek elkarri lotzean eta modernizazioaren bilakaeran sendotu diren dogmak kritikatzeko.

3.1. Ilustrazioaren printzipio legitimatzaileak, gainbehera eta proposamen teorikoak

Modernitatearekin munduaren kontzepzio naturalista bat gailendu da, erlijioen ostean bigarren naturalizazioari egin zaio leku sekularizazioarekin giza ekintzak ez dira jada autoritate jainkozko batengandik eratorriak (kitikarako: Clark, 1999). Aurrerabidean fedea sortzen da, bereziki gizartea, kultura eta historia gizakiaren fruitu direlako, gizakiaren hitzaren eta ekintzaren fruitu; halaxe sortuko dira aurrerantzean errealitateak eta kontzeptuak ere sozialki. Ilustrazioaren sorkuntzan proiektu epistemologiko bat eta berari loturik proiektu politiko bat agertu dira.

Lehen une batean modernitatearen ezaugarri nagusiak, alegia, krisiak edo aldaketak, batu egingo ditu aurrerabidea eta autonomia, arrazoia eta iraultza politikoa. Gaur, politika ilustratua, epistemologia kantianorik eta modernitatearen loririk gabe, aurrerabidearen adiera zalantzan ipintzen da. Modernitatean sintesia egin badute, modernizazio-prozesuarekin bi fenomeno argigarri berretsiko dira: batetik, zientzia eta teknologiaren errugabetasuna erortzen da; bestetik, balio epistemikoak eta zientifikoak balio ekonomiko eta militarren menpean geratuko dira (ikus: Barry eta Slater, 2002); "arriskuaren gizartea" eta "iraultza teknozientifikoa" bezala ezagutzen dira bi fenomeno horiek, mugarría Manhattan Proiektua eta ondorengo bilakaerak izaten ahal direla. Pasarte garrantzitsua da, modernitatearen euskarri nagusia izan baita arrazionaltasun zientifikoa, politikaren estatizazioarekin batera; fenomeno sinkroniko da bi-bien krisia (ikus: Barry, 2001; Eizagirre, 2003; Eizagirre *et al*, 2003; eta Latour 1993 zirikatzailea).

Nolanahi, ezin uka daiteke aurretik ere antagonismoaz, kosifikazioaz, alienazioaz, kulturaren tragediaz ohartarazi duten soziologoak badaudela (Horkheimer, Lucács, Marx, Simmel). Printzipiozko identitate batean iraultza teknozientifikoa eta giza askatasuna biltzeari utzi zaion garaiotan, bloke-politikak izoztutako gatazka nahiz desorekak lehertu eta burgesia liberalaren utopiak porrot egitean, ifrentzu

horiek lehentasuna berreskuratzen dute, halaxe metropoliak, esperientzia errealak, esklabutza berriak, kontsumismoa eta gaixotasun psikikoak, injustizia ekologiko eta sozialak, eta abar (Featherstone, 1995).

Mentalitate positibistarekin giza arazoak zientziak konponduko ditu: egoera teologikoa (jainkoengandik eratorzen dira arazoak konpontzeko arauak) eta egoera metafisikoa (etika filosofiko batetik eratorzen dira arazoak konpontzeko printzipio abstraktu eta unibertsalak) gaingitu ostean, ezagutza eta metodo zientifikoa izango dira konponbideen iturri. Intelektual eta politikoak positibismoaren irakurketa horretan oinarritu dira (Blumenberg, 1985). Subjektu pertsonalaren ideia hori da krisian dagoena (ikus: Azurmendi, 1998). Merkatua eta espektakulua totalitarismo berria lirageteke, halako moldez non espiritu faxistaren errealitatea berreskuratzen den, gizartearen totalitatea integratu, ez errepresentatu, eta bilduta, neutralizatuta (adb. Subirats, 2001). Ez badago aterabiderik, bilaka dadila uneko balio historiko, estetiko edo etikoa espektakulu (Baudrillard); horra, behialako ezkeraren fatalitatea. Kanpora eta barrura mundu diferentziatuak sortzeaz gain, arrazoi instrumentalaren beste makurra kontsumoaren subjektuan datza, horren egoera ez baita egonkorra, orekatua, baizik kulturalki eta psikologikoki larria.

Dena, ordea, ez da estrategia fatala: zientziaren filosofia praktikoa eta horren azterketa lokalak, pluralismo axiologikoaren proposamena eta soziologian autokritika sozialaren teoria, krisiarekin posmodernoaren estrategia fatala nagusitu dadin ekiditeko ahalegin ausarta dira; bide hori da ilustrazioarekin proposatu diren ideia askatzaileak, arrazoa eta kritika, berreskuratzeko modua. Hor dago etorkizunerako ikerketa interesgarri bat (adb. Ibarra, 2001; Latour, 2000; Law eta Mol, 2002; Macnaghten eta Urry, 1998).

Ez da zientzia eta teknologiarekiko irakurketa modernizazioarekin jasotzen den aldaketa bakarra. Integrazio-modu modernoak ere jauzten dira, besteren artean, gizarte-eredu oso bat, familia nuklearra eta lanaren gizartea ardatz dituen, alderdi-sistema, hazkunde ekonomikoa, hauteskundeak, nazioen arteko gerrak. Gizarte indibidualizatueta baikortasun salbatzailearen sekularizazioa ere erori egiten da: Estatu eta monarkia ez zaizkio herritar garaikideari azken epaile, eta gizarteek apenas duten erlijio jatorrikoa den gizartearekiko nahiz eurekiko kontzepzio armoniatsua; Estatuaren autoritatea eta herritarren obediencia erlijioen absolutua orainaldian materializatzen datza.

Estatua aztertzerakoan ezin ditzakegu bere sorrera eta perspektika historikoa bazterrean utzi (Cassirer, 1948). Honek ondorio bikoitza du: batetik, politika teologia sekularizatu bilakatzen da; bestetik, absolutu gisa egituratu den Estatu-ereduarekin bat egiten ez duten errealitateak, kulturak, gizarteak, etniak erreprimitu, homogeneizatu, sozializatu egingo dira. Zenbait kasutan, eta egitate hau gizarte garaikideetan indartzen ari den joera da, toleratu egingo dira diferentziak, baina pribatizatu eta esfera publikotik aldentuz; hauxe da tolerantzia ilustratuaren aldaera garaikidea, zuzenbidearen filosofia eta justiziaren kontzepzio politikoa proposatzen duten autoreek berreskuratua, eta demokraziaren irakurketa normatiboetan ere nagusitzen dena: esentzia liberal-konstituzionalak soilik onesten dira esfera publikoan, gatazkatsuak diren auziak, balioak, ongiaren kontzepzioak at utzi eta esfera pribatura mugatuz (Habermas, 1997; Larmore, 1987; Rawls, 2001). Nolanahi,

ikuspuntu epistemologikoa kritikatu eta hurbilketa kontestuala proposatzen duten autoreak ere modernitatearen proiektu politikoa gainditu ezinik topatzea posible da, aldi historiko bat dutelako absolutizatzen edo liberalismoan dituztelako biltzen kapitalismoa eta demokrazia biak bat: kapitalismoa zuzentzea eta demokrazia sakontzea litzateke irtenbidea (alderatu, hurrenez hurren: Rorty, 1982 eta 1998). Aitzitik, esfera politikoan balio pluralak leku izanen duten ildoak landu behar da, joera arrazionala eta komunitarioa kritikatu liberalismo pluralistaren ekarpenak jasoko dituen, posmodernoak deritzen biraketa kritikoaekin elkarlanean (Mouffe 2000).

Modernitatea legitimatzeko erabili diren printzipio nagusiek eta bere eratorriek merkatu sistema militarrean egiten dute topo eta printzipio, egitura, teoria modernoetan sartzen ez den guztia gaitzesten dira. Printzipio abstraktuak nahikoa zaizkie gizartea orekatu eta gehiengo isilak biltzeko. Administrazioak eta korporazio ekonomikoak, hots, politikaren subjektuak, arduratzen dira bakoitza bere lekuan jartzeaz. Eta hor dago kokka: errealak eta errepresentatutakoaren hausturan, oraindik gizartearen ikerketarako erabiltzen ditugun kategoria ordenatu, absolutu, uniforme eta errealtate konplexu, global eta transnazionalen hausturan. Nazio-askatasuna eta klase-borroka ez eze, Estatu-nazioa eta kapitalismoa ere esanahirik ez duten kontzeptuak dira, oso malguak eta aldakorak (adb. Harvey, 1989; Lash eta Urry, 1987 eta 1994). Printzipioak, egiturak, teoriak orokorrak eta binarioak izan ohi dira eta, halabeharrez, irakurketa oro haietatik deduzitu behar izaten dira gainera: nazio espainola eta horren kontrabalarazio mimetikoak, adibiderako.

Aipatu diren bi printzipio legitimatzaileen gainbeherak, arrazionaltasun zientifikoarenak eta politikaren estatizazioarenak, eta irudikapen berriak osatuko lituzkete, bestalde, indibidualizazioak eta biografia erreflexiboak; hori da nire proposamenaren kokatzea.

Marjinetatik mikro-politika nahiz toki-politika kosmopolita egiten ari direnek (ikus: Beck, 2000a), altermundista batzuek esaterako, hizkuntza klasikoen hutsaltasuna erakusten digute (baita enpresa transnazionalak eta euren transpolitikek ere); harreman juridikoek harreman sozialak nola, teoria modernoek ere esperientzia errealak ezkututzen dituzte, besteren artean instituzio modernoak gainditu eta behopolitika egikaritzen dutenak (baina baita politika pribatizatu, Estatu ahuldu, joko-arauak parapolitikarekin eraldatzen dituztenak). Teoria eta instituzio modernoek ez diete eskaini nahi gertakari horiei egiturazko garrantzirik, eta inertziagatik mantentzen diren teoriak eta instituzioak une oro behartuta daude berregokitzera.

Alabaina, behe-politika hau ez dago sistema kritikatzeko eta kritika anti-sistemiko gisa ulertu beharrik derrigor. Zehaztapen hau garrantzitsua da. Gizarte-hurbilketak zorrotz nahi dituenak jakin behar du jende hori guztia ez dela kontrapolitikan biltzen; bizitzeko era desberdinen esperientzia eta autonomiaren sustapena kontratu hotzak gainditzearekin batera datoz: oraindik orain, gizon-emakumeen harremanetan, sexualitatean, generoan, lanbidean, bestea eta bestelakoa egon badagoela onartzen duen postura etikoa eguneroko jarrera politikoetan atzematen dugu, bestearekin negoziatzea eskatzen duena; baldintza emozionalak, sozialak, materialak negoziatzea eskatzen duena. Eta horren ondorioak gobernu-politiken erreformatan nagusitzen ari dira: azken urteetan herrialde desberdinetako legebil-

tzarretan onartzen ari diren legeak ikusi besterik ez dago. Fenomeno sozial haue-
tako asko berriak dira arazo publiko gisa eta, bereziki, agenda politikoetan landu-
tako gai gisa.

3.2. Paralisis aldakorra

Integrazio-modu zaharrak apurtzeaz gain, lanaren demokrazia ahalbidetu duen aliantza historikoa ere zapuztu egin da teknozientzia eta interes-taldeen liberalis-
moen nagusitzearekin (ikus: Bhagwati, 1998): gerra osteko kapitalismoa, estatu
soziala eta demokrazia, negoziazioak instituzioen barnean gauzatzeko hiru zutabe
oinarrizkoak izan dira (ikus: Aglietta, 1982). Eta horiek ahalbidetu dituzte, hein
handian, ongizatea, eskubide sozialak eta politikoak, identitatea azken hamar-
kadetan; hortik sortu da gero zuzenbidezko Estatu demokratiko eta soziala. Gaur,
ordea, kolokan daude aliantza hori, demokrazia modernoa eta alderdi-sistema;
kolokan konstituzioa, demokrazia, ongizatea; beraz, eskubide zibilak, politikoak
eta sozialak, iragan hiru mendeetan borrokatu hiru eskubideak, hurrenez hurren.
Horren ondorioen artean parapolitika, estandarirazio berriak, memoria historikoen
gainbehera, espektakulua eta diskurtso populistaren agerpena aipa litezke.

Elementu hauek guztiak elkarri lotuta azaltzen hasi behar dugu. Horretarako bi
euskarri izango dira politikaren pribatizazioa eta paradigma modernoaren gainbehe-
rarekin alderdi tradizionalak nahiz alderdi-sistemek dituzten gabeziak; analitikoki
bereizgarriak diren fenomenoak izanagatik, eta irakurketa zenbait soziologia kriti-
kok lehendik jasoagatik, praktika soziopolitikoan elkar elikatzen duten fenomenoak
dira. Ondoko lerroetan teoria posibleak fintzeko helburua izango dut: ondorioz,
errealitateen azterketatik gauzatuko dira balizko teoriak, ez alderantziz. Urte
luzeetako gertakariak laburtu eta gure garaietarako baliozkoa zaigun moduan
aurkeztuko da, lerroak errazte aldera. Herritarra eta bere ordezkariak esfera
publikotik baztertu direnean, Estatuaren eremuan poliziak soilik izanen dira subjek-
tuak esfera publikoan; eta jakina da zein den polizia baten eginbeharra: ordena
publikoaren eztabaida hitz eta ekintza naturalekin gauzatzen ez duena debekatzea.

Hasteko, irakurketa historikoa eskainiko dut. Botere politiko legitimoa lortu eta
gobernu-politikak ahalbidetzeko propagandaren bidez herritarren botoa eskura-
tzeko formalizazioarekin hasi ziren alderdi politikoak egonkortzen, ordu arteko
handikien edo frakzioen orde; gerora forma horiek izan dira alderdi-sistema eta
demokraziaren bermea. Modernitatean subjektu politikoak haiek izango dira, baina
guztien arteko hitzarmen tazito bati jarraiki; askatasunarekin bat egiten du poli-
tikak: legebiltzarkideek herritarrekiko duintasuna eta herritarren askatasuna biak
bat izango dira garai honetan —nozio eta pertzepzio publiko gisara—. Esfera
politikoaren printzipio axiala hiritarrak demokrazia politikoaren erakundeetan parte
hartzea da; politika bada posiblearen artea, politikaren subjektu diren herritarrak
posiblearen artistak izango dira. Modernizazio politiko, ekonomiko eta sozialekin
sistema politikoak legitimatzeko bidea izan dira alderdi politikoak. Iraultza nazional
eta industrialekin etengabeko prozesu batean komunitatea eta bizikidetzak hiritar-
eta burges-nozioekin garatu dira, bien arteko harreman ahul eta aldiroko tirabiran.
Tokian tokiko gatazka-ardatzak nolakoak izan eta horietan nola lerratu, halakoak
izango dira alderdi politikoak; hauek dira lau *cleavage* edo gatazka-ardatzak:
estatu / eliza; zentroa / periferia; jabedunak / langileak; nekazaritza-mundua /

industria (klasikoa: Lipset eta Rokkan, 1967). Lankidetzak, botere-harremanak, askatasuna, berdintasuna, antagonismoa, zorientasuna, elkartasuna, gobernuak, erabakimena nola bildu, eztabaida politikoaren ardatzak eta espazio publikoaren konfigurazioa nola egituratu, polis bat, halaxe dira eremu ideologikoan lerratzen alderdi politiko batzuk eta besteak, edo halaxe alderdi politikoak eta gizarte-mugimenduak bereizten. Halaber, hiritarra eta burgesa nola definitu, euren arteko harremanak eta mugak nola trazatu, halaxe dira banatuko alderdi politikoak batetik eta korporazioak bestetik. Hori horrela, eta gizarteko alde desberdinek instituzio modernoan integratuz hitzartutako erabakiek, iragan mendeko bigarren zatian printzipalki, lanaren gizarte demokratikoa ahalbidetu izan dute, gatazkak instituzioen eremuan gauzatu.

Gaur, ordea, jarduera politikoaren axiologia formalen eta zorroztasun analitikoaren behar handirik gabe, nornahik aise atzemango du esfera publikoaren porrota (Blumler eta Gurevitch, 1995). Politika interes pribatuak kolonizatua dute, herritarrak hil da eta burgesa iragan da gizarte-bizitzaren zuzendaritzara, dirudunetara mugatu den burgesa; politika informazioa duenak egiten du eta Merkatuan kontsumoaren subjektuak erabakitzen du (Gay eta Pryke, 2002). Eta politikari Merkatuak badio aurre hartu, egoera aurre-kapitalistetara itzuli gara (Ripalda, 1996). Interes-taldearen liberalismoan erabakien subjektuak ez dira herritarrak, orain eskubideak tokiz aldatu eta eskubideen subjektuak korporazioak dira (Strange, 1996). Merkatu-harremanek, hauteskundeek, iritzi publikitatuak gogorarazten dizkigute libertateak, pluralismoa, demokrazia. Populua eta subiranotasuna historialarien ikerketetan soilik topatuko dira aurrerantzean, zerbitzuen kalitatea eta auzien kudeaketa teknikoak izango dira lau urterik behin funtzionarioak milagarrenez hautatzeko irizpidea. Politika (ikus: Clarke eta Newman, 1997) izaera funtzionaleko arazoak bideratzeko gestio hutsera murriztu da; alderdi politikoak, berriz, boterearen itzalean finantza-iturrien bermerako zaintza-enpresara. Alderdi politikoaren joko-eremua, politikoaren gabezia eta mendetasunaren erakusle bat gehiago, komunikabideak eta epaitegiak dira; komunikabideek leku hartzen dute: marketing politikoa, sondeo estrategikoak, politikaren estetizazioa, hautagaien pertsonalizazioa antzerkiaren osagaiak badira, ustelkeria eskandaluaren politikan arma bat gehiago izanen da (ikus: Gingsberg eta Shefter, 1990); bestetik, arazo politikoei esfera juridikoan emango zaie irtenbidea, edo behintzat esfera juridikoan ustelduko da, auziak, komunikabideetan, herritarren pertzepzioetan, agenda politikoetan lehenetasuna galdu ahala. Ez da harritzekoa ere bi toki horiek izatea mugimendu sozialen jokoan heldulekurik landuena. Bestalde, interes-taldearen liberalismoak eta korporazio ekonomikoek demokrazia parlamentarioa alderdi biko sistemara behartzen dute eta zentroaren bi alboetan geratzen den eremu soziologiko zabalak abstentzioa edo blokean bi alderdietako bat bozkatzeko aukera besterik ez du; gatazkardatz bat baino gehiago dituzten herrialdeak ere ez dira kritika horretatik at geratzen, euskal politikak frogatzen digunez. Eta okerrean ezkerreko alderdiak oraindik orain hauteskundeetarako programak eztabaidatzen ikustea da: politika eta alderdi-sistema identifikatzea, posiblearen artistak parlamentuetara mugatzea, lezioa ez ikastearen adierazgarri dira, edo hamaikagarrenez joko berrekoiztea. Zentroaren errepublikan (ikus: Levyn *et al.*, 2001) joko-eremua Merkatua eta parlamentua dira, eta joko-arauak parapolitikatik ezartzen dira; hutsaren pare gatazkie. Herritarrak izatearen duintasuna, politikaren subjektuak izatearena, bi

aldean esku dago, ordezkarien eta ordezkatuaren esku; gaur artean herritarrak sisteman integratzea izan da saiakera bakarra, eta historien amaierekin, langileen eta nazioen askatasunerako mugimenduen porrotekin, integratzeko moduak aldatu dira. Akats larria da masa limurtzeko abangoardia neoliberalak erabilitako bitarteko subliminalei arreta ez ipintzea, are gutxiago horrela gizartearen irakurketa mugatzen dugunean (Leys, 2001; Philo eta Miller, 2001).

Pasarte luze bi horiei arreta ipintzea komeni da, hots, alderdi politikoen sorrerari eta interes taldeen nagusitasunari, hurrenez hurren. Izan ere, ordezkatuaren eta ordezkarien arteko harremana ez eze, sistema politiko modernoa ahalbidetu duten beste aldagaiak ere erortzen dira. Horien artean hauek aipa daitezke: kontsumoaren subjektuak hiritarra ordezkatzeko; diskurtso eta balioen gainbehera interesen kudeaketaren ordainetan; hautu, hautabide eta agentzia berrien ezinezkotasuna alderdi-sisteman eta aukera politikorako egitura itxiak. Irakurketa horiei arreta ipintzeak frogatzen digu instituzio modernoetan espero daitekeena, instituzioetatik eta *homme* hutsera mugatu pertsonengandik espero dena. Alderdi politikoei duten mendetasun estrukturala ere testuinguru horretan ulertu behar da, eta horri eskema zaharren ezegokitasuna eta zehaztugabetasuna eranstean bazaizkio, urrats bat eman ahalko dugu diskurtso dominanteen lerroak ulertzeko: alderdi politikoei eskuinaldera joko dute, kontserbadoreen balioak iturri nagusi dira, eta populismoa agertzen da; hauteskunde-kanpainak eta hauteskundearen emaitzak, azken urteotan Europako herrialdeetan, kultura politiko baten argazki dira.

Politikaren esanahia aztertzeak ezin ditu albotik pasatzen utzi kontsumoa eta luxuaren fundamentalismoa, barne- eta kanpo-segurtasuna, edo populismoa, horien inguruan egituratzen baitira alderdi politikoen diskurtsoak eta gehiengo isilen kontzientzia ona, *the good people*, politikaren kulturen eta giza eskubideetan inboluzio demokratikoak geldiezin dirudienean. Horrek, bidenabar, agerian utzi du demokraziaren adiera prozedimentalista eta demokraziaren erabilgarritasuna bake-ordena eta askatasuna bermatzeko onetsi dituen kultura politikoaren arazoa. Liberalismoa eta demokrazia bi aldagai diferentealdi historiko batean elkartu izana eta demokraziaren materialitatea, memoria historikoa, eskubideen lorpenak ezin daitezkeela ikuspegi historiko eta sozial batetik at ulertzea, funtsezko bi zehaztapen dira gizarte garaikidean gertatzen ari diren aldaketa-prozesuak ulertzeko (Macpherson, 1973).

Indibidualizazio-prozesuak egiturazko aldaketa bat suposatzen duenez, hipotesi bat proposatzen dut: beldurraren diskurtsoa nagusitzen da joko-eremua telebista eta kontsumoa dituen alderdien merkatu sistema militarizatuan eta ondorioak fatalitatea, errealtateen neutralizazioa eta errealtatearen ideologizazioa dira, horien alboan bilduz komunikabide sentsazionalistak, elite zinikoak eta herritar intoleranteak; aldiz, harreman lokalak, teoria eguneratua nahiz gizarte mugimendua bizi den eremuetan autodeterminazioerako erabakimen eta ekinbideak nagusitzen dira. Bi horiek dira politikaren denbora desberdinak bizi ditugunotan aurrez aurre dauden gertakizunak, indibidualizazioaren teoriak jasotzea ahalbidetzen dizkigun errealtate konplexuak.

Herrialde askotan atzematen dira kontzientzia, mobilizazioa eta botoa, edo kritika soziala eta bozka politikoak hautsiak daudelako zantzuak. Hori ulertzeko

tokiko irakurketak ekidinezinak dira, eta horri lagun diezaiokie irakurketa osa deza-keen testuinguru globalaren giroak. Informazioaren haize-erauntsia bizi dugu gaur, han-hemengo berriak, era bateko eta bestekoak, eta ondorioz sarri zailtasunak ditugu inguru erreala, esperientzia pertsonalak, edo jasotako berriak elkarrengandik bereizteko. Eta irakurketa horiek guztiak bi eratara barneratzen ditu herritar xumeak: eskema zaharrak eta hitz ulerterrazak izango ditu informazio konplexuak, pluralak eta askotarikoak inguratzen duen testuinguru oldakorrean irtenbide, populismoa; eta horiek errazten dizkiona, berriz, erreferentzia, hots, gerturatu, egoera ziurtatu eta laguntzeko prestutasuna duen hura, populista. Eta hori ez da tradizio soziologiko atzerakoia dutenetara mugatzen; aitzitik, diskurtso eta instituzio modernoek dogmak, eskema itxiak eta guztizkoak gizarte osoa inguratzen du, ezkerretik eskuinerainoko gatazka-ardatz luze-zabalean. Denek izan dituzte herritarrak bloke-diskurtsoan bilduak, batzuek eta besteek guztiarekin bat etortzeko errezetak plazaratu izan dituzte, bai ezkerrek bai eskuinak.

Gaur horrek porrot egin du, eta errepresentazio haiek zailtasunak dituzte erreallitateak irakurtzeko nahiz denbora berrietara egokitzeko. Horri, bestalde, bigarren aldagai bat eransten ahal zaio: orain artean tokiko gertakari, bilakaera eta balioak ideologia zabalagoen menpean zeuden, unibertsalak ziren gertakari, bilakaera eta balioen eremuan azaldu behar ziren. Demagun sozialismoaren bidez edo liberalismoaren bidez, jendeak, aurrez narrazio erlijiosoekin nola, tradizio ideologiko eta politikoetara egokitu behar izaten zuela, alegia, herritarren esperientzia erreala era batekoak edo bestekoak izanagatik ere, diskurtso handiek estilizatutako kanonetara egokitu behar zituen herritarrak bere esperientziak, izan ongira izan salbaziora izan proletargoaren garaipenera izan nazioaren nagusitasunera. Denbora historiko linealarekin hasiera eta amaiera banatzen ziren, bien elkar topaketaren denbora historiaren amaierarekin gertatuaz.

Laburbildutako bi fenomenoak garrantzitsuak dira: batetik, eskema zaharren ahulezia gizarte garaikideen irakurketarako; eta bestetik, herritarren bizipenen erreprimitzea ideologia unibertsalen aginduetara. Testuinguru horretan kokatzen da diskurtso populisten nagusitasuna. Hau ez da alderdi populistetara soilik mugatuko, eta zentroaren errepublikarako norantzak ere sendotu egingo du joera; eta, noski, alderdi tradizionalen gabeziak eta anbigutasunak atzematen diren heinean, diskurtsoaren norantza ez eze, herritarren joera ere populismora lerratzen da maila politiko-kulturalean. Diskurtso eremua non kokatua egon, ulergarria izango da herritarrek joko eremu horretan zehaztasuna eta berezkotasuna frogatzen dituen alderdia bozkatzea: segurtasuna eta ordena badira eztabaidaren gatazka-ardatzak, ulergarria da ezkerrek horra egokitu beharra; izan ere, herritarrak nahiago du anbiguotasunik gabeko mezuak helarazten dizkionari boto ematea, eskuinari alegia.

Eta norantza horri beste datu bat doakio alboan: gazteek ez dute obedientziaren tradizioa, ez daude alderdi tradizionaletara lerratuak, eta aukeratu ohi dute abstentzioa edo unean uneko alderdia, uneari egokien erantzuten dion alderdia. Ez alferrik, metropolietako akademia marginaletan marxisten ikasgai bat izan da: teoria ordenatuak ez, baizik errealtatetik abiatzen diren balioak, diskurtsoak, proposamenak taularatu behar direla (Ripalda edo Jameson-en lanetan, esaterako).

Gaur, ordea, auzi lokal eta monografikoei erantzuteko erraztasuna eskema zaharrak gainditu baina diskurtso biribilekin plazaratuek soilik bideratu dute, populismoari jarraitu diotenen; ez oraindik ezkerak eta politika transnazionalak, hots, toki-politika kosmopolitak. Bitan labor litezke: nazionalismoa eta ordena. Eta, hori horrela, jendea egon daiteke Iraq inbaditzearen aurka eta Iraq inbaditzearen aukera politikoa egin duen alderdiaren gobernu-politika hauteskundeetan bozkatzeko prest. Terrorismo lokala eta globala, segurtasun falta, fenomeno sozial berrien agerpenak balioetara eta diskurtsoetara izan duen egokipenak imaginario jakin bat sortu du, eta hori gero hauteskundeetan islatzen da: jendeak lehentasuna ematen dio bizitza pertsonalari eta horren defentsari, aldaketarako proiektuei baino; hauteskundeak marko estatalean eta kategoria estatalekin burutzen dira, eta gainera jendeak tokiko auzi, bizipen, esperientziak konpondu nahi ditu. Horri erantzen bazaizkio, batetik, mobilizazioaren kultura berriak hauteskunde, alderdi-sistema eta instituzio modernoekiko duen jarrera ezkorra, eta, bestetik, beldurra- ren imaginarioan mobilizazioa ere aldaketa ziurgabearen mehatxuarekin lotu izana, hauteskundeak eta botoak diskurtso jakinek harrapatua ez eze, eremu ideologikoaren alde batera lerratzen direla ikusiko da. Batetik, mobilizatzen direnek abstentziorako joera anti-sistemikoak hartzen dituzte, edo sistemarekin kritikoak diren alderdiak bozkatu; bestetik, eremu soziologikoaren gehiengo batek ez du tradizioz mobilizatorako, nahiago ditu ordena eta bakea, eta gainerako guztia kontrolaezina eta ziurgabea zaiolarik, horiekiko kritikoena den alderdira lerratzen da, tokiko arazoan konponketa proposatzen dion alderdira. Nolanahi ere, bi aldeetatik zapuzten da instituzioen baitan erreformak burutzeko aukera: erreformatzailerik, gainera, boterera heldu eta aldaketa politikoa bultzatzeko derrigor beharko lituzkete botoak eta gehiengoa. Horrek, milagarrenez, demokrazia prozedimentalak hamarkaden bilakaerarekin hartu duen izaera ebidentzian ipiniko luke, bestalde. Halaber, beste eztabaida zahar baterako ateak ere ireki daitezke gogoeta hauetatik: legalitatea, legitimitatea eta legitimizazioa hirukoari dagokiona, hain zuzen ere.

Lan osoan azaltzen ari naizen moduan, jarrera deterministak ekidin behar ditugu, marko irekiak behar dira eta mugimenduan dauden gizarteei arreta ipini behar zaie. Aurreko lerroetan esandakotik ez dago komunikabideek politika baldintzatzen dutela ondorioztatu beharrik. Bi fenomeno bereizi behar dira: batetik, politika tradizionalaren espazio berria eta, bestetik, informazioa eta politika. Euskal Herrian daukagu, gainera, biak bereizteko adibidea. Politika tradizionalaren lekua, hein handi batean, legebiltzarretik komunikabideetara pasa da: logika elektorala eta interesen errepresentazioa diren heinean alderdi politikoak baldintzatzen dituzten bi fenomenoak, etengabeko produktibitate mediatikoa eta politiko beharrezkoa suertatzen da. Alderdi politikoak, ondorioz, era orotako informazio-fluxuen menpean geratzen dira, egiturazko aldaketa sozial, instituzional eta teknologikoek politika informazionalarekin demokrazia parlamentarioa bera auzitan jartzeraino. Eta une honetan iritzi publikoa eta iritzi publizitatua bereizi beharra daukagu. Informazioa orotarikoa izan daiteke, baita elite politikoaren diskurtsoa ere, edonolako gaiet buruzkoa eta edonolako moduekin, beti ere denbora laburrenean auzia igorritz, informazioaren gizartean komunikabideak direla arma sendoena jakitun, hori modu simple, labor eta sistematikoan helaraztea komeni delarik. Bigarrenik, testuinguru horretan zehaztu behar da informazioa eta politika bi-bien harremana. Sarri esan ohi da komunikabideek determinatzen dutela herritarren

jarrera gai zehatzen inguruan. Horrek, gutxienez, bi zehaztapen eskatzen ditu, biak ere gizarte baten kultura eta pluralismo demokratikoarekin lotuak: batetik, komunikabideen aniztasunak eta berrien joan-etorriak herritarrari mezu bera ere modu desberdinean jasotzea ahalbidetzen diote, kontrainformazioa eta datuen kontrajartzea posible da; bigarrenik, gizarte-sarea dinamikoa den heinean, herritarrek oraindik euren informazio-iturri gisa mantentzen dituzakete esperientzia erreala eta gertakarien truketzea, gero eta nagusiagoa den komunikabideen alboan. Arreta ipini behar zaie bi fenomeno dira, eta komunikabideei buruz ohikoak diren irakurketa murriztaileak zalantzan ipin ditzakete; era berean, agerian geratzen da gaur zertan diren herritarra eta komunitate politikoa, demokrazia eta pluralismoa, eztabaida eta iritziz publikoa: hori posible den lekuetan anulazioa hasia dago, ebidentzian utziz Estatua zertara murriztua eta mugatua geratu den. Aipatu oniritzi guztiak euskal gizartean aurkitzen ditugu, arazoak edukitzeaz gain dinamismoa ezaugarri nagusitzat duen euskal gizartean.

Hurbilketa analitiko kritiko bat lantzeko ahalegin orok aipatu diren aldagai guztiak banan banan landu beharko ditu, horiek elkarrekin lotu, eta tokiko gertakariak oinarri harturik, garatuz doazkeen teoria eta proposamenak sustatu. Adibide bat ipintzearen, modernitatea, segurtasun-esferak, alderdi-sistema, edo, aurrez aurre, indibidualizazioa, gizarte-mugimendu berriak, identitate eta elkartasun globalak; euskal abertzaletasunaren erronka behinena ere hor datza, orain berrogei urteko iraultza kulturalari modu garaikideagoan ekinaz, hala ekinbidean nola erabakimenean.

Amaitzearen, Animalia Artifiziala, politikaren dis-balioak eta tra-diskurtsoak, gobernu-politiken legitimaziorako imaginarioak, demokraziaren sendotasuna eta integratuen oreka bermatzeko egitate erreala, horiek guztiak ezin daitezke politika hizpide duen azterketa batetik at utzi, are gehiago horiek izan daitezkeenean gaur politika zertan datzan eta animalia politikoa zertan den frogatuko diguten txanponetako bat.

3.3. Indibidualizazioa

Zeinu mertzenarioen kode erabilgarri eta eraginkorrek espektakuluaren gizartean ebidentziari berari harresiak ipintzen dizkiotelarik, horren aitzinean tradizio kritikoa denbora berrietara moldatu eta espazio publiko berria, akordatua, konpromisozkoa, komunikatiboa, ziurtatu behar da. Horretarako bidean indibidualizazioa eta modernizazio erreflexiboa gizartean eta politikan demokratizazio-prozesuak gauzatzeko proposamen baliozkoak dira, orriotako zehaztapenak presente izanez gero, gizartera hurbiltzeko modu desberdin bat proposatzen duten heinean. Zentzu horretan lotu daiteke iragan hamarkadetan atzean utzitako askatasun-borrokekin, gizarte ordenatuen itzalean aukera historiko jakin hori marko erreflexibo batetik iraultzeko eta modernitatea desfatalizatzeke aukera planteatzen digun heinean.

Diferentziazio funtzionalaren gizartean (Luhmann), batetik, legalitate objektibo bakoitzaren eremuan aditu propioak egon dira, ekonomian, politikan, kulturean, erlijioan, zientzia eta teknologian, eta, bestetik, pertsona bakoitzari neurria definitu zaizkio espazioak eta betebeharrak. Ziurgabetasunak, sistemen arteko elkarreraginak, egunerokotasunaren mikro-politikak, gertakari berriak hedatzen doazen heinean, ordea, izoztuta eduki diren gizarte-gatazka eta desorekak lehertzeari egoera garaikideekiko ulermen-eza erantzen zaio, eta horri, berriz, aukera berriak

(Harvey, 2000). Ez dira soilik eskema zaharren defizitak agerian geratu, baita hor tokia ez duten fenomenoak agertu ere. Hori da, laburrean, ezkeraren ikuspuntu kritikoari erreflexibitatearen tesiak egin diezaiokeen ekarpena.

Horrela ulertu ahal da, halaber, ezkerak paradigma-aldaketaren aitzinean dituen gabeziak, herritarrak erakartzeko, ilusionatzeko, biltzeko gaitasun falta, edo instituzioak aldatzeko bide tradizionalen hutsaltasuna: ahalmen aldetik ez eze, herritar progresistarentzat berarentzat ere diskurtso nahiz borroka-bide tradizionalak estatuarekin negoziatzeko, aldaketa politikoa administratzeko edo herritarrak Estatu ideologikotik persuaditzeko aukera desegokiak dira, abangardia baten hiru berezitasunak hurrenez hurren; pentsa, esaterako, europar kultura garaikidean bortxazko mugimendu baten etorrian. Aldaketa politikorako atzerakoiak gertatzen dira modu, bizipen, bitarteko, diskurtso, eremu modernoak, eta, gainera, atzeraezina dirudi herritarren aldetik autodeterminanteak izateko erabakiak: jendea politika eguneroko bizipen eta erabakietan burutzen duela susmatzen hasi da, eta ez dago hori beste inoren esku uzteko prest, gutxiago ordezkari onetsi ez dion talde baten esku. Besterik da herritarren indibidualizazio horrek aldaketa politikorako duen indarra.

Hori horrela izanik, aldaketa politikorako erabakimen eta ekinbide orok politika eta sistema politikoa biak bat egiten dituen lotura apurtzea nahitaezkoa da (Cruikshank, 1999; Honig, 1993), eta jendeak hori pertzibitzerainoko lana burutzea dagokio aukera berriari, gure kasuan ikerketen agenda berria proposatzeari. Aldaketa nahi duenak jakin behar du nola elkar elikatzen duten kategorია- eta irakurketa-ereduak, gizarte-egiturak, instituzioak, jendearen portaera eta pertzepzioak, eta abar. Politika erreala eta instituzio politiko modernoak biak mantenduko dira herritarrek euren egunerokotasunean politikaren subjektu direla eta horren efektibitatea eraginkorra izan daitekeela sinisten ez duten heinean.

Gizarte-zientzietako ikerlarien aldetik, errepresentazio eta erreferentziarako kategoria modernoak eraberritzea baldintza bat izango da. Azkar batean, ondokoak izan daitezke nabarmendu beharrekoak.

Bizi-estilo berrien zantzuak harremanen izaera desberdinean eta harremanak hitzartzeko aukera eta autonomia pertsonalean atzematen dira. Harremanen izaera aurrezarria eta harremanen hitzarmen hotzak amaitzen ari dira, eta belau-naldi berriek konfiguratu eta eurak konfiguratzeko dituzten harreman eta bizipenak arras bestelakoak dira zaharren belaunaldiekin alderatuta. Orain beharrezkoak dira konfiantza, elkarrizketa, akordioa, autonomia, errespetua: ez dira rola, legeak, tradizioaren koertzioak, baizik harremanak dira moralitate erreflexiboaren oinarria; familiaren kasuan, esaterako, instituzioak eta rola indarra galtzen dute toki eta funtzioak hitzartzerakoan, eta maitasuna eta harremana dira lotesleak, tentsio iraunkor bat sortuz autodeterminazioaren eta mendetasun erreziprokoaren artean (ikus Beck eta Beck-Gernsheim, 1995). Gaur indibidualismoaren estereotipo dominantea, esaterako, harreman horietan gezurtatzen da, autonomia eta bizitza propioa eduki nahi duenak nahitaezkoa baititu ondokoak, besteak, gizartearekiko sentsibilizazioa; neska gazteak arropa zikina garbitzen hasten badira, denboran maitasuna eta harremana zalantzan ipiniko dira pairatu injustiziagatik,

egitekoak ez diren heinean aukera eta negoziazioa. Askatasunerako kultura bat izaten ahal da, besteren artean, gaurkoa.

Maila orokorrago batean, inon bada aldaketaren adibide garbiagorik, Euskal Herrian, batetik, hirurogeiko hamarkadan auzi moraletan ere autodeterminazioa lehenetsiz eta, bestetik, laurogei eta laurogeita hamarrean herri- eta gizarte-mugimenduekin politikaren kultura diferente baterako zantzuak egikaritzu eman-dakoak izan litezke. Euskal Herrian memoria historikoak, demokrazia materialak eta eskubide-borroken oroimenak, eten moralak eta espiritu, diskurtso, moral publiko berri baten aldeko iraultzak, edota frankismoaren bizipenak indibidualizazioarekin eta politikaren denbora berriekin uztartzeko ahaleginak, aurrera sor daitezkeen aukeratarako bermatu, sustatu eta egituratu beharreko altxorra izaten ahal dira; arrazoi bat gehiago, beraz, ekoizpen akademikorako.

Astiroago baina espazio politikoan parte-hartzea eta hori estatu-antolamenduetatik bereiztea ere areagotzen ari da, masa-alderdiak, sindikatuak eta estatuen erreferentzia gainditzen dira, diskurtso publiko berri batek eta printzipio moralak praktikarekin prozesualki sortzeko egitasmoek ordezkaturik. Bizi-kalitatearen politika, mikro-politika, ekintzak sistematik at egikaritzeko eta instituzioetatik aldentzen diren sareetan balioak eta edukiak sortzeko joera, gobernu-politika eta giza harremanen arteko lotura eza, horiek dira aipa daitezkeen ezaugarri nagusienak. Politika tradizionalak legitimitatea eta legitimazioa galdu dute, inertzia historikoa-gatik funtzionatzen dute eta euren operatibitate-eza gai eta arazo globalei erantzuteko gabezietan nabarmentzen da, dela giza beharrekiko dela sortu arriskuekiko; beste batzuk aipatzearen: ingurumenarekiko nahiz gizarte gaiekiko ardura, ekintza kolektiboak gauzatzen dituztenekiko elkartasunaren areagotzea, datuen sinesgarritasuna Gobernu Kanpoko Erakunde eta mugimenduekiko (ikus: Beck, 2002). Ez dago, noski, politika erreal eta sendo bat, baina portaera horiek fenomeno baten adierazgarriak dira, ez gizarte-ikerlariak ez gizarte-mugimenduek bazter ezin ditzakegunak, politika modu batekiko urruntzeaz gain politika berriek izan dezaketen legitimitatearen eta legitimazioaren ikur baitira; harreman juridiko orok jaso beharrekoak, bitarteko material, sozial eta instituzionalak eskainiz, garantia liberalerako eta gizon-emakumeen autonomiarako bidean.

Denboraren erabilera eta denbora sistemiko soziala (Adam, 1995), bizi-eredu instituentek eta instituzionalizatuak ez datoz bat, ziklo biografikoak idazten dituzten herritarrak eta instituzio politiko modernoak, politikaren denbora desberdinetako eredu bi, aldi bereko garaian bizi direnotan. Pentsatu besterik ez dago heziketa profesionalaren bilakaeran, emakumearen bizipenak antzaldaten dituen etxe-, heziketa-, lan-, hiri-politikan, lan-baldintzetan, sexualitatean. Gizarte-antolaketa diru-iturri eta Ongizate-Estatuaren segurtasunean oinarritu duen instituzioak kale egiten du, ikuspegi horretatik begiratuta ere, familia nuklearrak bermatu lan domestikoa eta tokien definizioa apurtzen den une beretik. Alegia, europar herrialdeetan azken urteetan nagusitzen ari den gizarte-sistemaren murrizketari ziklo biografikoan gertatzen ari diren bilakaerak erantsi behar zaizkio, eta biak loturiko irtenbideak eztabaidatu, ez badira beste behin gizartearen irakurketa-ardatza edota botere-harremanak murriztu eta mugatu nahi. Esaterako, ekoizpen-moduen azterketa egin nahi denean, nahitaezkoa da oinarri ekonomikoez gain, hautazko identitateak, merkantilizazioa eta estandarizazio kulturala kontutan hartzea, baldin

eta nortasunen malgutzeak eta anizteak edo neoliberalismoaren dominazioak irakurri nahi badira. Gaur, ordea, ezkerreko alderdi tradizionalistek eta sindikatu burokratizatuek Estatu ipintzen dute irtenbidearen muinean, eta hori gizarte-nahiz ekonomia-desorekak zuzentzeko bitarteko gisa erabiltzen da, gainera. Proposamen bakarra eredu hegemonikoan guztiok parte hartzea da.

Frantziako hauteskunde zalapartatsuak (2002-05-14) ezkerrek gizarte plural eta konplexuei erantzuteko dituen gabeziak frogatzeko talaia dira, behin soziologia klasikoak eta bere abstrakzioek, sozialdemokraziaren porrotak, hazkunde ekonomikoaren irakurketa linealek, klase-paradigmaren ahultzeak, merkatuen mundializazioak, marxismoaren krisiak, deserregularizazioa-pribatizazioa-liberalizazioa hirukoak, gizarte eta demokrazien despolitizazioak eta ohiko eskemak nahastu dituztenean. Atal honetan analisisen hutsuneak frogatzen ari gara, baina proiektu politikoek ere ezinbestean izan behar dute pluralagoak eta dinamikoagoak, onean uneko nahiz tokian tokiko gertakarietara egokitzeko gaitasuna izan dezaten.

Aldaketa soziala teorizatu eta egoera asimetrikoak iraultzeko hurbilketa metodologikoak eraberritu beharra, esaterako, klase-harremanek frogatzen dute (Nancy, 1991): bizi-aukera objektiboak desberdinak izanagatik ere, eta lan-munduan ezagutzen ari garen berregituratzeak inoizko baldintza ziurgabeenak sortuagatik ere, maila sozial eta politikoan klase-borrokak apenas du erreferentziarik sortzen. Hori ez dago kausalki gizartean axolagabekeria nagusitzearekin lotuta, lan-gizartearen individualizazioak ez baitu talde kolektibo desberdinetarako, parte-hartzerako edo elkartasun berrietarako joera murriztu. Lan-baldintzen okertzeak, denbora baterako lanek, lan partzialek, prekarietateak, eskusioak (ikus: Beck, 2000b) bultza dezakete lanpostuarekiko jarrera individualistetara; halaber, autoenpresarioaren ideologia gringoak (ikus: Furedi, 2002). Baina ira-kurketa motz geratuko da lanaren gizartearekiko izan diren egiturazko aldaketak ez eze, tradizio horiekiko belaunaldi berriek dituzten balioak ere baztertuz gero, alegia, individualizazioa; gazteentzat lanaren gizartea ez da sistema sinbolikoa eratzeko lehenesten den erreferentzia. Haatik, gizarte-desegituraketei ziklo biografikoan bizi-proiektuak baldintza materialekin egikaritzeko eta autonomiarekin konfiguratzeko autodeterminazioa izango da askatasun-eremuak lortzen direlako isla; gainerakoetan, sare-harremanak ahulak eta hautazkoak izanik, pertsona baten bilakaera apurtuta gera daiteke, sozialki eta psikologikoki ondoratzeraino; eta egoera horretan dagoenak, gizartearen kanpoan kokatzen denak, eskluitua dagoenak, biziraupena bermatuko dion testuinguruaren faltan, azken kezka eskubide politikoak izango ditu, hots, demokraziak edo beste sistema batek ez dio axolako, eta bai errudunak identifikatu eta irtenbideak eskainiko dizkion azalpenak, diskurtsoak, gidak. Eta ez ditzagun Arendt batek totalitarismoen jatorriaz eginiko azterketak eta nazismoa-erekikoak ahantz.

Orain bi mendeko soziologo kritikoek atzeman dituzten aldagaiak sendotzen ditu gaurko gizarte-ereduak. Izan ere, segurtasun-esferak eta komunitate aurrezari eta betierekoen ahultzeak ez du politikaren denbora garaikideak askatasunarenak direnik adierazten. Individualizazioak ez du ez autonomia ez atomismoa adierazten, orain arteko gizarte-ereduaren akabera baizik; isilpeko iraultza kulturala, orain arteko familia nuklearra, lanbidearen gizartea, nazio ordenatu eta determinatua, ziklo biografikoen ziurtasuna, zientzia eta teknologiaren errugabeta-

sunak, klasea eta alderdi politikoa, horien guztien bilakaera baizik. Hor kokatu behar da, lehenik eta behin, animalia politikoarekiko gogoeta oro. Ez da harritzekoa, beraz, estandarizazio-modu berrien agerpena eta industria kulturalak informazioaren gizartean eredu berriak sortzeko duen parada, eremu murriztu eta zehaztuen baitan mila koloreko hautuak ahalbidetzen dituenak: eurak dira nonbait askatasunaren eta pluralismoaren markoa, eta hor autoerreferentzialtasunerako joera indartzen du kontsumismoak (ikus: Lury, 1999). Kontsumoaren kultura, ekonomia aurrekapitalista, administratzaileen gizartea, politiko demagogoak izango dira indibidualizazioari etekina aterako diotenak, bizi-egoeren oinarriak eta bizi-ereduen erreferentziak euren baitatik eskainiz. Indibidualizazioak hori ere badakar, eta hautazko harreman ahulak eta fragmentatuak landu, bermatu, ahalbidetzeko gai ez den ororen eremu- eta joko-arau bilakatzen da. Anbivalentzia eta konplexutasun horien zorian ibiltzen hasi behar dugu, horiek teorizatzen, modu analitiko-kritikoan.

Ziurgabetasuna laburbiltzen du indibidualizazio-prozesuak, eta horri erantsi ahal diogu bigarren aldagai bat: kontratu hotzen amaierak ez du ekarri ziklo biografikoan aukerak eta baliabideak modu egonkor nahiz berdinean banatzea. Ondorioz, bakoitzak bere erara irakurriko ditu garaiko bizipenak eta gertakariak, baita unean-unekeko posizioaren arabera: pertsonen artean ez eze, pertsona bakoitzak ere denbora-horizonte desberdinak izango ditu oinarrian; bikotearekin, lanbidean, gizartean dituen bilakaeren arabera. Aukera eta baliabideak gertakizun, une eta posizioaren arabera aldatzen dira, urriak nahiz amaiezinak gerta litezke, baliatzen dira ala ez, eta guztietan ondorio psikologikoak, sozialak, ekonomikoak jasan daitezke. Eta horrela sortzen dira gizarte-harremanak, horien ekoizpen edo berrekoizpena gainditzean, baina beti ere auziaren itzulpena eta zehaztapena pertsonala izanik.

Indibidualizazioaren aukera posibleak marko horretan aztertu behar dira, tokiko eta garaiko gizarte-, ekonomia- eta politika-egoerek baldintzaturiko ziurgabetasunaren testuinguru horretan. Gaurko bizipenak hortik at egiteak desitxuratu egiten du irakurketa, aukera posibleak ixten ditu, prozesuen demokratizazio faltaren arriskuak estaltzearekin batera. Politikaren esanahiak eta Gizabere erreflexiboak ere hor du jokalekua; zentralismo politikoak, botere autoritario, hierarkiko eta kontrolatzaileak, batetik, aukera posibleak, pluralizazioak eta autodeterminazio ahalmenak murrizten ditu, eta, bestetik, gizarte globalizatu eta aurrekapitalistan, boterearen kontzeptio espazialaren amaiera eta bere ondorioak ezkutatuz, balizko autonomia politikoa simulatzen du. Nolanahi, horren krisia nabarmena zaio edonori, eta aurreikusten ahal da krisi-garaiotan neokontserbadoreen iragan hamarkadetakako diskurtsoak ere berreskura daitezkeela (Bell, Huntginton, Kristol), hala bloke-politika berriak sortuz —demokrazia vs terrorismoa, ez denean mendebaldea vs islamismoa—, nola legitimazio-krisien ingurukoak bultzatuz.

Pertsonak eremu soziokultural berri batean mugitzen dira, politikak bere esanahia birdefinitu behar du, eta politikarentzat esparru diferenteak aurkitu behar dira: hala soilik lortuko da politikaren subjektuak herritarrak izatea eta gizartearen erabakietarako politikaren autonomia bermatzea. Alderdi politikoen eta ideologiaren espektroak ez dirudi gaur-gaurkoz hori behar den moduan atzematen duenik.

Herritarren irakurketak jada ez dira oinarrizkoak eta printzipiozkoak, baizik eta zehatzak, monografikoak, glokalak, lokalaren eta globalaren dialektika birdefinituz, eskema klasikoak eta dualistak gaindituz, identitate multipleak, hauskorrak eta iragankorrak nagusituz, ispiluan sarri bestea izanik erreferentziazat, eta behar adinako eta nahi moduko baldintzarik ezean, ispiluaren bestaldekoa etsai gisa fundamentatuz bere identitatearen sendotasunerako (alderatu: Appadurai, 1996; Soja, 1996; Gilroy, 2000); era berean, ordea, behar eta nahi horiek situazionalak izanik, pluralak eta aldakorrak orobat, leialtasunak eta erreferentziak ere noiznahi erlatibizatu ahal dira, aukera eta segurtasuna unean uneko okasioak baldintzatua egonez gero: horrexegatik beragatik, indibidualizazioa aldi historiko batean sortzen da, Ongizate-Estatua ahalbidetu den testuinguruan, eta ezin liteke irakurketa absolutu gisa planteatu.

Indibidualizazioaren teoriak berak proposatzen duena ez lukete, beraz, indibidualizazioen teorikoek eurek ekidin behar. Halaber, alderdi-sistemak modernitatearen inertziak berrekoizten dituela frogatzeko, ikusi besterik ez dago hazkunde ekonomikoarekin baliabide materialen defentsa bermaturik balio posmaterialak aldarrikatu eta praktikatu dituzten gazteak eurak direla gaur gobernu-politiken kudeatzaileak. Prozesua ez da lineala, eta indibidualizazioaren tesiari leialak bagatzaizkio, aukera posibleei atek ixten ari garela ondorioztatzen ahal dugu: agenda publikoan eta, bereziki, agenda politikoan proposamen desberdinak eztabaidatzeko aukerarik ezean, marko errepresentazionalak estutu eta aukera posibleak murriztu egingo dira, konfigurazio posibleak mugatuz. Horregatik, ordea, gizarte-zientzietako ikerlariek euren azterketak politikaren espazio tradizionaletik atera behar dituzte, zedarritze berriak proposatze aldera.

4. Politikaren delimitazio berria

Ordena publikoan eztabaidatzeko eta izendapen berrietarako hitza eta praktika egikaritzen dituzte gizon-emakumeek, gure bizitzak baldintzatzen eta konfiguratzten dituen hura hitzartzeko, orain arte zehaztuak egon diren funtzioak, espazioak, betebeharrak erori eta subjektu autodeterminatzaile gisa gatazka berriak akordatu behar diren heinean. Indibidualizazioak eta ziurgabetasunak irekitzen dituzten espazioak eta balioak berriak dira. Bilakaerak ez daude determinatuak: ez da soilik egitateekin bat etor gaitezkeela eta ontzat eman ditzakegula ala ez, edo teoria kritikoari totalitatea irudikatzea falta zaiola eta kapitalismo transnazionalak identitate egonkorra, unifikatua eta organizatua duen heinean ikuspegi kritikoa multikulturalismora eta fragmentuen azterketara mugatu dela (alderatu: Beverly *et al.*, 1998; Dean, 2000; Gray, 1998; Laclau, 1994). Horren gainetik, diskurtso publiko berrirako eta gizarte-mugimendurako, dinamismorako, aldaketarako aukerak dakartzate indibidualizazioak eta ziurgabetasunak.

Gatazka eta hitzarmen berriak sortzen dira, eta egunerokotasunaren praktika eta politikan suertatzen zaizkio aukera horiek jendeari, bere egunerokotasuna negoziatu behar duenean, edo batzuekin posiblea zaion negoziatzeko ahalmena oztopatua zaionean beste batzuetan mendetasun egoeran dagoelako, indibidualizazio-prozesuak segurtasun-esferen erorketarekin ez baitakar aukera berdintasuna; esaterako, bikote batek familian erabakiak ez ditu behiala lez hartzen, batak ezin du bestea gabe erabaki, gatazkak posible dira eta ez dago negoziatzea beste

biderik, baina horra asimetriak eta mendetasunak eratortzen ahal dira bietako batek lanbidean izan ditzakeen arazoengatik, edo alderantziz elkertasunak eratortzen ahal dira, eta abar. (adb.: Adam, 2002). Kontraesan eta borroka horiei arreta ipiniz gero, kategoriak berregokitu eta aldaketarako pentsatzen hasiz gero, gizon-ema-kumeek autonomia eta askatasunerako duten lerratzea eta neoliberalismoaren makurra atzematen dira. Konplexutasuna tematizatzeak eta aukerak, askatasunak, borrokak bultzatzeak hor bat egin dezakete, askatasunaren kultura arriskuan dagoen heinean kapitalismo transnazionalaren bilakaerarekin, hots, kapitalak pro-letarioaren beharrik ez duen ereduarekin (Falk, 1995; Hirst eta Thompson, 1996).

Gaur indibidualizazioarekin ez dira askatasun-prozesuak egitate bilakatu, baina identitateak banakakoek elkarrekin bizitzan akordaturako prozesuetan materializatzen ahal dira, aurrezarrirako markorik gabe eta egunerokotasunean, determinaziorik gabe eta egun handia itxaron beharrik gabe. Identitateak hautazkoak dira, ahulak, eta irekiak nahiz oztupoj josiak, penalizazio legalengatik, desberdintasun sozialengatik, koakzio moralengatik, eskusio kulturalengatik. Horiei guztiei erantzuteko moduak ekartzen dituzte gizarte indibidualizatueta, bestalde, fundamentu egonkor eta iraunkorrak eskaintzen dituzten destinoek, jendearen ahultasunak, beldurrak, erosotasunak; defentsak gaingitu eta aurrezarria, zurrak, betierekoa lehenesteko okasioa ere badagoelarik: indibidualizazioak, koindibidualizazioak eta kontraindibidualizazioak, hau da, erabaki nahiak, elkarren artean erabaki beharrik, eta bestearen erabaki nahiz egitateek norberarengan eragitearen behin-behinekotasunak, iragankortasunak, ziurgabetasunak, egoera horrek autoritarismo berrietarako zantzuak indartzen ditu. Irakurketa anibalente hori ezin daiteke baztertu, eta hori guztia esan nahi du indibidualizazioak. Horrek, bigarrenik, demokrazia parlamentarioa ahalbidetzen duten egitura sozialak eta kategoriak gaingitzen ditu, eta, hirugarrenik, politikaren esanahia eta politikoarena eraldatzen ditu. Jendea bilaka liteke ordena publikoaren diseinatzaile, baina baita diseinurako objektu berria ere, ingeniariak sozialak, genetikoak nahiz arkitektura juridikoak itzul daitezkeen neurrian, kapitalaren semiotika lagun (ikus: Rose, 1999). Konplexutasunaren markoan askatasunerako espazioen nahia, pertsonen identitate askotarikoa, aldakorra batetik, eta pertsonen kontraesanen neurriko instituzioak bestetik: azken batean, alderdi politikoak, sindikatuak, estatuak, elizak, familiak, instituzio gisa, nola bilakatu ahal diren gizarte indibidualizatueta, prekarizatueta, transnazional, multikultural eta pluraletan, posthumanoan, erlazionalean.

Pluralismo enpiriko eta axiologikoak, aukera berriek, sistema definitu eta diferentziatuen akaberak, nortasungintzak, azken batean, artikulatu honetan flash modura eskaini diren gertakariak demokraziaren instituzioak eta teoria politikoak auzitan ipintzen dituzte. Prozesuari eta botereari, hots, testuari eta materiari erantzungo dioten instituzioak eta teoriak ere birpentsatu beharra dago. Gaur egungo gatazkak eta krisiak ez dira ematen unibokoak eta determinatuak diren erakundee-tan: gaur egungo gatazkek eta krisiek erakundeak eurak ipintzen dituzte zalantzan; eta ezin daitezke demokraziaren teoria politiko nagusiekin bildu: ez demokraziaren interpretazio enpirikoarekin, (Arrow, 1951; Downs, 1957) ez demokraziaren interpretazio normatiboarekin (laburpenerako: Casquette, 2003). Errealitatearen irakurketa finagoa egiteko indibidualizazioaren tesiak eta errealitatearen asimetriak eraldatzeko gizarte-mugimendu berriek (Melucci 1996), hurrenez hurren, frogatzen dizkigute aipatu bi gabeziak.

Praktika politikoaren marko errepresentazionala landu behar dugu, errealitateen hurbilketarako modu berria eta kritikoa izango dena aldi berean. Ezin gaitzke ideia abstraktuak edo falazia naturalistak destilatzen dituzten jarreretara mugatu. Gure irakurketak ez dira ezagutza hobekak soilik, irakurketa horiek beroriek gizartean interbentzio bat ere badira, eta anbibalentzia eta ziurgabetasun konstitutiboak teoria eta praktikaren, tokiko eta ondokoaren trukatzeko batean soilik jaso daitezke. Lan honetan proposatu denagatik, politikoaren inguruko hausnarketa batean ez da nahikoa aktore desberdinak eta pluralak proposatzea, beharrezkoa da horri eredu dinamikoak gaineratzea, determinismoak eta arrazionalitate teleologikoak gaindituz, analisi epistemologikoak prozesuari eta gatazkari kasu egin diezaien; erronka metodologikoa eta pragmatikoa da. Teoria plural eta dinamikoak praktika glokaletan nola gauzatu, hori da politikaren inguruan datozen urteetan eztabaidatu beharko duguna. Kontsiderazio historikoak, egitatezkoak eta analitikoak kontutan hartu beharra dago (ikus: Bohman, 1999; Manin, 1987; Sanders, 1997; Young, 2001).

Galdera, gogoeta, erantzun guztiek dute zama teoriko eta axiologikoa. Horietako bat honako hau da: gizarte indibidualizatu eta globalizatueta zein dira sortzen diren eta sor daitezkeen orientazio politikoak, zein aukera posibleak, zein konfiguratu daitezkeen espazioak? Galdera horiek dinamikotasuna eta irekiera dituzte euren baitan, eta horien planteamendu iraunkorrek oztopatu egiten du itxiera, akordio, amaiera oro, eta kritikatu egiten du politika gobernu-formara eta kontsentsuaturiko auziaren administrazio prozedimentalera mugatzea. Halaber, indibidualizazioak eta biografia erreflexiboak lagun diezagukete frogatzen ondokoa: praktika glokaletan agentzia heterogeneoak enpresa plural batean ari direla gatazkan eta akordioan, gizarteak ez baitira itxiak, libreak, funtzionalki diferentziatuak. Praktika horietarako, baina, teoria eta errepresentazio berriak behar ditugu; halaber, teoria eta errepresentazio berriek soilik erakusten dizkigute praktiken asimetriak, heterogeneotasunak, anbibalentziak, konplexutasunak, elkarrekin. Eta egitateak nahiz giza taldeak izendatzeko inoiz baino zailtasun gehiago egonik, esperientzia errealean informazioak, teoria kritikoak, inoiz baino premiazkoagoak zaizkigu. Honi, erantsi, eusko labela.

Pentsamendu, interpretazio, portaera derrigortuak elkarri lotuta daude, eta gizarte modernoetatik heredatutako instituzioak, kategoriak, praktikak politikaren denbora berrietarako instituzio, kategoria, praktikekin aurrez aurre dauzkagu gaur. Jarrera subertsiboak atzematen ditugu, Carl Schmitt filonaziak *sub-vertere* nola definitu zuen gogoan, ordena basetik iraultzen ari garen heinean, homogeneizazioa ukatu eta pluralismoaren baldintza ezartzen ari garen heinean. Bizi-estiloak, ongiaren kontzepzioak, balio desberdinak, kontrajarriak eta berriak agertzen zaizkigu esfera publikoan, jendeak autorizazio politikoa bere gain hartzen du biografiaren eremu batzuetan edo besteetan, ez denetan derrigor, posible dira autodeterminazioa, autoritarismoa eta negoziazioa gure biografia zatikatuetan, modernizazio-prozesua eta bere ondorioak gizarte-eztabaida dira, eta askatasun posibleak besteekiko konfiantzan soilik dirudi ahalezkoa.

Alderdi-sistemek zer eman diguten politika- eta gizarte-zientzietako ikerketek une oro berresten digute, instituzioek ere zailtasunak dituzte errealitateetara egokitzeko eta beti atzetik dabilta, ez badira akordio bakarrak itxiera, anulazioa,

harresia, nazioarteko hitzarmena segurtasunean. Maila estatalekoak dira horiek, baina jendeak urrutitxo ditu instantzia horiek eta instituzioen arautze-xedeak desafiatzen ditu, nahita edo nahigabe, gizarte-mugimendu berriekin edo biografia erreflexiboekin. Euren bizitzak politizatzen dira, eta politikoa den hori ez da erabakirako prozedura bat, baizik eztabaida-objektua: hor sortzen da politika entitate epistemiko gisa ulertuz gero, garaira egokitu den politikaren esanahia eta Giza-bere erreflexiboa kontzeptualizatzeko ezinbesteko ideia. Errealitatea konfiguratu duen botere soziala sistema politikotik askatzen dute herritarrek eta konstelazio orotako agentziek gai zehatzak eremu luze-zabalean hizpide dituzte, eremu pribatua, publikoa eta estatala auzitan ipiniz, *continuum* dinamikoak biziz.

Lerro horiek ere badira gizarte garaikideko egitate, besteren artean; eta, beste behin errepikatzearren, hau ez dago kontrapolitika, antisistema, edo sistema kritikatzeko jokamolde gisa ulertu beharrik, desafioa irudi dakigukeen hori herritarren erabakiz gerta baitaiteke, besterik gabe. Ez dira soilik politikaren denbora desberdinak atzematen, baizik herritarrek eta ikerlariek hori nola tematizatzen duten ere bai.

Kontratu hotzen amaiera bizi dugu gaur, bestelako instituzioak, ekonomia eta gizarte-ikuspegiak posible direla berrestera datozenak: herritarren praktikak nola, instituzio politikoak eta perspektiba ekonomikoak aldagarriak dira. Politika lehertu da, noiz eta historiaren amaiera iragarri denean, hizlariak eta ekintzaileak atsedena kontzeptualera pasa direnean. Herritarrak politikaren espazio eta muga berriak zedarritzen ari dira. Gizarte-mugimendu berriek, bestalde, gizarte indibidualizatueta birlotura desberdinak proposatzen eta egikaritzen dituzte, demokraziaren ahalmena eta definizioa zalantzan jartzen dituzte, nortasungintza, libertateak, kritika eta subjektibitate politikoa uztartuz. Artikulu honetan ez diot gai horri arreta ipini nahi izan, ikastaroan badira hori landuko duten hitzaldiak, gizarte-mugimenduei buruzko teoriak, lanak, manualak nonahi daude, baina ez dut uste politika hizpide dugunean alderdi-sistema eta gobernu-politikak kritikatzearren eta politika ulertzeko beste moduak badaudela frogatzearren hizpide jasotako gizarte-mugimendu berriak nahikoa direnik. Horregatik indibidualizazioari eskaini nahi izan diot artikulu hau, baina hori ulertzeko pasarte argigarri batekin, auzi epistemikoari dagokiona, hain zuzen ere.

Eta biak bereiztea komeni da. Batetik, demokraziaren internalizazioa dago, gizartea mugimenduan dago, askatasunen zehaztapena eta eremu berrien sorrera, gatazka, toki eta paktu berriak, alderdi-sistemarekiko mesfidantza, formalismoa, itxurakeria eta konplizitateen kritika, errealitate multidimentsionalak eta eskema zaharren gabeziak, gizarte politikoa eta errealizazio pertsonala, bizi-kalitatea eta elkartasun-modu berriak, autodeterminazioa eta hautazko sare lotesleak, eta horien guztien ifrentzuak, ordena geldirik baitago. Gizarte dinamiko soilik izango da politikaren denbora berriek ahalbidetutako aukerak sustatu eta garatuko dituen: komunitate askeak eta indibiduen erabaki librean determinatutako hau-tuak ezin daitezke imaginario eta abstrakzio huts izan. Ezta, ordea, interpretazio demokratiko arrazional edo moral ere. Instituzioetako politikoek, pertzepzioek, kulturek blokeatuta gauzkate ekintza eta pentsamendu moderno polizialek eta paralisatzaileek, indibiduen estatizaziora zarratzen gaituzte; nazionalismoak,

legebiltzarrak eta merkantilismoak, hor ekoizitako beldurrak, babesak, ziurtasunak askatasuna, autoafirmazioa, demokrazia oztapatuz.

Bestetik, ordea, teoria politikoek, eta ez soilik marko konstituzionalek edo gobernu-politikek, dinamika propioa duten askatasunei, esperientzia egikarituei, identitateak sortzen dituzten askatasun eta esperientziei ez diete keinurik egiten, eta sekularizazioarekin ahalbidetutako gizarte armonikoa simulatu nahi dute hazkunde ekonomikoarekin, instituzioekin, hauteskudeekin, kohesioarekin, subiranotasun eta lurraldetasunekin, herritarrei ezagunak zaizkien hitz-moldeekin. Horri buru egiteko ez da nahikoa artikulu honetan jasotako indibidualizazioa, ororen gainetik gizartearen irakurketa bat delako; baina horrek ere laguntzen digu aldaketa baterako zehaztaperetan. Izan ere, politikaren gramatika oso bat kolokan dagoela frogatzen digu erreflexibitatearen tesiak: modernitatearen teoriak, instituzioak, portaerak gobernatzen dituzten politikek gainerako egitateak ez ikertzeko, neutralizatzeko edo despolitizatzeko balio dute. Artikulu honetan proposatu den hurbilketak negoziazioaren garrantzia jasotzen du, egin den irakurketan aldaketak eta ziurgabetasunak nagusitzen baitira. Errealitatearen dilemak, bestelako aurpegiak, bestelako moduak irudikatzeko ahaleginean jarraitu behar dugu, esaterako: modernitatearen monopolio europarraren amaiera, zientzia autokritikoa, kulturen elkarrizketa, fatalisten aliantza tematizatu behar ditugu. Hitza eta ekintza berreskuratzen ahal dira, biekiko monopolioa apurtzen da, hau da, kontrolaren, toki eta funtzio naturalaren, hazkundearen gramatika, eta agerian geratzen da semantika ere hustua dagoela, hau da, demokraziaren erabakimen abstraktuenak hartu eta ekinbide larderiagarrienak burutzeko erabiltzearen makurra; hurrenez hurren: askatasuna edo segurtasuna, eta bake-operazioak edo ekintza antiterroristak.

Teoria politiko klasikoek erabilgarritasuna, lehentasuna, interesak, batetik; edo komunitatea, identitatea, borondate kolektiboa, bestetik, hobetsi dituzte. Ondorioz, gatazkak, diskurtsoak, balioak, instituzioak alde batera utzirik, eta modu exogeno batean, interes indibidualak edo kolektiboak materializatzen diren eszenatokia litzateke politika. Bietan aurreiritzi eta jarrera aurrepolitikoa dago; ekonomikoa eta indibiduala batean, identitarioa eta komunitarioa bestean; lehenari Merkatuak eta bigarrenari komunitateak, nazioak, klaseak eutsiko diete. Gaur oraindik irakurketa horiek nagusitzen dira gizartera egin hurbilketetan. Alabaina, indibidualizazioak teoria politikoari ere ekarpena egin diezaioke. Lehentasunak eta borondateak ezin dira egunerokotasunean nahiz prozesu demokratikoetan baizik sortu. Politikaren izaera askatzailea eta sortzailea berreskuratu ahal da, aurretiazko borondate amaituak eta determinatuak gainditzen badira. Gizaki maximizatzailea eta abstraktua edo borondate orokorraren pean komunitatea legitimazio-iturri duena, ez dira inondik ere gizarte garaikideetako arketipoak. Baina indibidualizazioari aukeraberdintasuna, informazio askea, prozesu komunikatiboa erantsiko bagenizkio, kontsentsua lortuko genukeela ondorioztatzea (laburpenerako: Sudupe, 1994; erantzuna: Connolly, 1988; Lefort, 1988), beste behin, ilustrazioaren proiektu autofundazionalan kaiolatua geratzea litzateke. Eta hori da batik bat indibidualizazioarekin gaudituz behar duguna, falazia sustantzialista; Marx edo Schmitt batek kritika argigarriak eginda edukiagatik ere, indibidualizazioak euren akatsak saihestuko lituzke. Ez da maila politikoan, baina ezta Merkatuan eta hauteskudeetan ere, kontsumitzailearen nahiz komunitatearen subiranotasuna islatzen. Politikan bizitza ona eztabaidatzen da, prozesu politikoaren emaitza izan beharko zukeena,

deliberazioarena, kontsumitzaileen nahiz herritarren lehentasun plural eta identitate ahulen bilakaera endogenoa. Eta hor asimetriak, mendetasunak, iruzurrak, hegemoniak ere aurkituko dira.

Aldi historiko jakin batean ari zaigu hau gertatzen. Gizarte-mugimenduek, ordea, herritarren autogobernua, autodeterminazioa, autonomia zalantzan dagoela jakinarazten digute, galera iraunkorren atzematen dituzte informazioa, deliberazioarako askatasun prozesualaren bermea, eta berdintasuna. Funtsezko galdera hau da: proposamen normatiboa nahikoa ote den, hots, hiritarrak garen heinean gauza publikoan parte hartzeko aukera eskaini behar ote zaigun, politika eraginkorra egiteko, arrisku eta gai berriak identifikatuz ekintza kolektiboen bidez agenda publikoan eta politikoan eragiteko, kapitalismoaren okerrak zuzentzeko eta demokrazia honetan sakontzeko, ordezkari eta ordezkatuaren harreman duina berrezartzeko, finean, alderdi politikoak, euren funtzioak eta deliberazio publikoa bermatzeko.

Hori bada funtsezko galdera, nire proposamena hau da: une hau dela indibidualizazioak eta gizarte-mugimendu berriek bat egin dezaketenean; hurbilketa analitiko kritikoa sendotua, zehaztua eta globalizatua izan dadin. Dilema planteatu dut, eta lanean zehar irakurleak proposamen normatiboarekiko kritikoa izateko ideiak aurkituko ditu. Demokraziaren ikuspegi instrumentalak ekonomia eta normatiboak etikoa azpimarratzen badituzte, gizarte indibidualizatu eta ziurgabeetan proposamen sustantiboa egin genezake, proposamen politikoa. Izan ere, politikaren delimitazio berriak demokrazia desestatizatzen du eta prozesu instituentek eta aukera posibleak agertzen dira izaera transnazionalako gizarteetan (Axtmann, 1998; Eder eta Giesen, 2001; Keane, 1998; Smith eta Wright, 1999). Era berean, ziurgabetasunak funtzionalki diferentziatutako sistemak eta aukera binarioak gainditzen ditu: adituen sistemak kolokan jartzen direnean, edo toki eta betebeharrak naturalak erortzen direnean, jende berria eta modu berriak agertzen dira: familiarena adibide bat da, beste bat zientzia eta teknologiaren errugabetasuna amaitzearekin sortzen diren zientzialari kritikoak nahiz zientziaren kritikoak.

Indibidualizazioa eta ziurgabetasuna behopolitika erreflexibo baten bidetik garatzea eta teorizatzea, demokrazia honetan sakontzea baino erradikalagoa da: demokrazia honen integrazio eta irekiera auzitan ipintzen ditu, eta politikaren adiera zibilago batera hurbiltzeko saioa izan daiteke. Are gehiago, auzitan dagoena ez da soilik alderdi politikoen logika elektorala, interes makurren errepresentazioa, izaera autoerreferentziala edo politikaren monopolioa. Erreflexibitatearen teoriarekin ez dira soilik hutsuneak kritikatzeko, eta proposamenak ez dira demokrazia eredu jakin baten legitimazio ex-ante edo ex-post batera mugatzen. Gainera, indibidualizazioak eta ziurgabetasunak pluralismoaren ideia ere badakarte, eta ez da esfera pribatura mugatzen, esfera publikora ere iristen da, eta horiek krisi instituzionalak planteatzen dituzte. Hori da une erabakigarria, krisia instituzionala denean joko eta arau politikoak baitaude kolokan eta kalakan, esentzia liberal-konstituzionalak une batean instituzionalizaturiko kontingentzia direla berretsiz.

Hor ulertu behar da indibidualizazioak behopolitika erreflexiboan joka dezakeen papera, eta hor indibidualizazioa, biografia erreflexiboa, gizarte dinamikoa, gizarte-mugimendu berriak eta demokrazia nahasten diren espazioak teorizatu eta egikaritu behar ditugu. Eredu politikoak zabaltzeko aukera berri bat bultzatzea dezake

biografia erreflexiboak. Laugarren aukera bat izan liteke. Politika arruntak nazioa, hazkunde ekonomikoa, enplegu betea, ongizatea, modernizazio teknologikoa aipatzen ditu; parapolitikak merkatu neoliberalera, eta barne- nahiz kanpo-segurtasuna; behepolitika, esan bezala, jarrera normatiboan oinarrituko da, hala demokraziaren defizitak konpondu, gobernu-politikak osatu eta gai berriak txertatzeko. Hiru errezeta ezagunak dira. Behepolitika erreflexiboa gizarte indibidualizatuari dinamikoitasuna eta aukera berriak erantsiz gero burutuko da, bitzta ona eta ordena publikoaren delimitazioa herritarrek egikaritzuz, politikaren izaera endogenoa eta sortzailea berreskuratuz. Izan ere, interesak, hautuak, identitateak botere harremanetan, gizarte-gatazkan, balioen pluralismoan, herritar desberdinek ahalbidetu espazioan konfiguratzeari deritzot politika. Dialektika bat dago, ezer ez da interes indibidual-material hutsa ezta interes kolektibo-imaginario hutsa ere: indibidualizazioarekin prozesu konstituentek sortzen dira, ez dago interes aurrezarririk, baina, bigarrenik, hauta daitezkeen interesak askotarikoak dira, batzuek elkartasuna eta besteek gatazka sor dezaketenak, hala indibiduoengan nola kolektiboengan, hala euren artean nola euren baitan. Marko errepresentazionalak eta pluralismo axiologikoak politika birformulatzen lagun diezagukete. Zer nolako balioak eskaintzen ditugun eta nork gobernatzen duen oinarritzko bi galdera dira; beste hitzetan: borroka ideologikoa eta gatazka-ardatzak non dauden kokatuta, nor diren politikaren subjektuak. Hor sortzen zaigu gizartearen analisisian gabiltzanoi beste egiteko bat. Ez da nahikoa politika espazio sozialen konstituzio-prozesu gisa definitzea, gizarteak instituitzeko modua normatiboki arautu behar dela argudiatzea, aniztasuna behar baita, baina alternatibak ere bai: ez alderdi-sistemak ez alderdi politikoek ez dituzte horiek bermatzen. Galdera horiek berak, hots, auzi ideologikoa eta politikaren espazio topologikoa, eztabaida politikoa dira, galdera diren heinean toki komunak zalantzan jartzen baitituzte: politika ona eta gobernu ona ere eztabaidagai izan daitezkeela, alegia. Eta parlamentuaren esanahia berreskuratzeo aukera ere badira, geldotasun eta eraso ikonomentarioa gaudituz, interesen eta balioen eztabaida ideologikoa eman daitezkeen neurrian. Tradizio politikoek, obediencia ideologikoek, leialtasunen inertziek gaur hori oztopatzen dute, baina informazioaren gizarte indibidualizatueta inoiz baino premiazkoagoa dira balioen eztabaida, mobilizazio kognitiboa, parte-hartzea eta antagonismoa.

Hor kokatu behar dira mugimendu sozial berriak; horien eboluzioak eta parapolitikarekiko lehiak baldintzatuko dituzte gizarte indibidualizatu eta globalizatueta hartuko diren orientazio politikoak eta konfiguratueto diren espazio posibleak. Hor itxaron daitezke aldaketa sustantibo bakarrak. Hor bat egin dezakete teoriak eta praktikak, erreflexibitateak eta gizarte-mugimenduak.

Bibliografia

- Adam, B. (1995): *Timewatch: The Social Analysis of Time*, Polity, Cambridge.
- , (1998): *Timescapes of Modernity. The Environment and Invisible Hazards*, Routledge, London.
- , (2002): "The gendered time politics of globalisation: of Shadow-lands and elusive justice", *Feminist Review*, **70**, 3-29.
- Agglieta, M. (1982): *Regulation and Crisis of Capitalism*, Monthly Review Press, New York.
- Albrow, M. (1996): *The Global Age. State and Society Beyond Modernity*, Cambridge University Press, Cambridge.

- Appadurai, A. (1996): *Modernity at Large. Cultural Dimensions of Globalization. Public Worlds*, University of Minnesota Press, Minneapolis.
- Archibugi, D., Held, D. eta Kohler, L. (arg.) (1998): *Re-Imagining Political Community. Studies in Cosmopolitan Democracy*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Arrow, K. (1951): *Social Choice and Individual Values*, Yale University Press, New Haven.
- Axtmann, R. (arg.) (1998): *Globalization and Europe. Theoretical and Empirical Investigations*, Pinter, London.
- Azurmendi, J. (1998): *Teknikaren meditazioa*, Kutxa, Donostia.
- Barry, A. (2001): *Political Machines. Governing a technological society*, The Athlone Press, New York.
- Barry, A. eta Slater, D. (arg.) (2002): "The Technological Economy", *Economy and Society* aldizkari ale monografikoa, **31** (2).
- Bauman, Z. (1989): *Modernity and the Holocaust*, Polity, Cambridge.
- , (2000): *Liquid Modernity*, Polity, Cambridge.
- Beck, U. (1986): *Risk Society. Towards a New Modernity*, Sage, London, 1992.
- , (1996): *The Reinvention of Politics*, Polity, Cambridge.
- , (1999): *World Risk Society*, Polity, Cambridge.
- , (2000a): *What is Globalization?* Polity, Cambridge.
- , (2000b): *The Brave New World of Work*, Polity, Cambridge.
- , (2002): *Power and Contervailing Power in the Global Age*, Polity, Cambridge.
- Beck, U., Giddens, A. eta Lash, S. (1994): *Reflexive Modernization. Politics, Tradition and Aesthetics in the Modern Social Order*, Polity, Cambridge.
- Beck, U. eta Beck-Gernsheim, E. (1995): *The Normal Chaos of Love*, Polity, Cambridge.
- , (2001): *Individualization*, Sage, London.
- Beck, U., Bonss, W. eta Lau, Ch. (2003): "The theory of reflexive modernization. Problematic, hypotheses and research programme", *Theory, Culture & Society*, **20** (2), 1-33.
- Béjar, H. (2000): *El corazón de la república. Avatares de la virtud política*, Paidós, Madrid.
- Beverly, J. et alia (1998): *Subculture and Homogenization*, Fundació Antoni Tàpies, Barcelona.
- Bhagwati, J. (1998): "The capital myth: the difference between trade in widgets and dollars", *Foreign Affairs*, **77** (3).
- Blumenberg, H. (1984): *The Legitimacy of the Modern Age*, Polity, Cambridge.
- Blumler, J. eta Gurevitch, M. (1995): *The Crisis of Public Communication*, Routledge, London.
- Bobbio, N. (1984): *The Future of Democracy*. Cambridge University Press, Cambridge, 1987.
- Bohman, J. (1999): "Democracy as inquiry, inquiry as democratic: pragmatism, social science, and the cognitive division of labour", *American Journal of Political Science*, **43** (2), 590-607.
- Butler, J. (1998): "Marxism and the merely cultural", *New Left Review*, **227**, 33-44.
- Casquette, J. (2003): "Movimientos sociales y democracia", *Cuadernos Bakeaz*, **55**.
- Cassirer, E. (1948): *The Myth of State*, Yale University Press, New Haven.
- Castells, M. (1996-1997): *The Information Age. Economy, Society and Culture* (hiru liburua), Blackwell, Cambridge.
- Cheah, P. eta Robbins, B. (1998): *Cosmopolitics. Thinking and Feeling Beyond the Nation*, University of Minnesota Press, Minneapolis.
- Clark, T.J. (1999): *Farewell to an Idea. Episodes from a History of Modernism*, Yale University Press, New Haven.
- Clarke J. eta Newman, J. (1997): *The Managerial State. Power, Politics and Ideology in the Remaking of Social Welfare*, Sage, London.
- Connolly, W. (1988): *Political Theory and Modernity*, Blackwell, Oxford.

- Cruikshank, B. (1999): *The Will to Empower. Democratic Citizens and other Subjects*, Cornell University Press, Ithaca.
- Dean, J. (arg.) (2000): *Cultural Studies and Political Theory*, Cornell University Press, New York.
- Downs, A. (1957): *An Economic Theory of Democracy*, Harper & Row, New York.
- Echeverría, J. (2003): *La revolución tecnocientífica*, FCE, Mexiko.
- Eder, K. eta Giesen, B. (arg.) (2001): *European Citizenship Between National Legacies and Postnational Projects*, Oxford University Press, Oxford.
- Eizagirre, A. (2002): *Arriskuaren gizartea. Modernitatearen krisia, teoria, gizartea eta politika Euskadin*, UEU, Bilbo.
- , (2003): “Riesgos e incertidumbres en ciencia y política”, *Inguruak* (argitarapena baieztaua).
- Eizagirre, A., Ibarra A. eta Rodriguez H. (2003): “Incertidumbres científicas y oportunidades políticas: comunicación científica, regulación y participación pública”, Non: E.A. Rueda: *Bioética y educación moral*, Biblioteca Nueva/OEI, Madrid.
- Falk, R. (1995): *On Humane Governance. Toward a New Global Politics*, Polity, Cambridge.
- Featherstone, M. (arg.) (1990): *Global Culture. Nationalism, globalization and Modernity*, Sage, London.
- Featherstone, M., Lash, S. eta Robertson, R. (arg.) (1995): *Global Modernities*, Sage, London.
- Fishkin, J. (1991): *Democracy and Deliberation*, Yale University Press, New Haven.
- Furedi, F. (2002): “The silent ascendancy of therapeutic culture in Britain”, *Society*, **39** (3), 16-24.
- Giddens, A. (1984): *The Constitution of Society*, Polity, Cambridge.
- , (1991): *Modernity and Self-identity. Self and Society in the Late Modern Age*, Basil Blackwell eta Polity Press, Cambridge.
- , (1994): *Beyond Left and Right*, Polity Press, Cambridge.
- Gilroy, P. (2000): *Between Camps*, Penguin, Verso.
- Gingsberg, B. eta Shefter, M. (1990): *Politics by Other Means: The Declining Importance of Elections in America*, Basic Books, New York.
- Gray, J. (1998): *False Dawn. The Illusions of Global Capitalism*, Granta, London.
- Guéhenno, J-M. (1993): *El fin de la democracia. La crisis política y las nuevas reglas de juego*, Paidós, Barcelona, 1995.
- , (1999): *El porvenir de la libertad. La democracia en la época de la globalización*, Paidós, Barcelona.
- Habermas, J. (1997): *Between Facts and Norms. Contributions to a Discourse Theory of Law and Democracy*, MIT Press, Cambridge.
- Hacking, I. (1999): *The Social Construction of What?* Harvard University Press, Cambridge, Mass.
- Harvey, D. (1989): *The Condition of Post-Modernity. An Inquiry into the Origins of Cultural Change*, Basil Blackwell, London.
- Harvey, D. (2000): *Spaces of Hope*, University of California Press, Berkeley, CA.
- Hayek, F. A. von (1944): *The Road to Serfdom*, University of Chicago Press, Chicago.
- Held, D. (1987): *Models of Democracy*, Polity, Cambridge.
- Held, D., McGrew, J., Goldblatt, D. eta Perraton, J. (1999): *Global Transformation. Politics, Economics and Culture*, Polity, Cambridge.
- Hirst, P. eta Thompson, G. (1996): *Globalization in Question. The International Economy and the Possibilities of Governance*, Polity, Cambridge.
- Honig, B. (1993): *Political Theory and the Displacement of Politics*, Cornell University Press, Ithaca.
- Horkheimer, M. eta Adorno, Th. (1967): *Dialectic of Enlightenment*, Verso, London.

- Ibarra, A. (2001): "Zientziaren kultur erronkak. Kultura modernoa zientifikoki islatutako kultura gisa", *Jakin*, **125**, 43-70.
- Isin, E.F. eta Wood, P.K. (1999): *Citizenship and Identity*, Sage, London.
- Irwin, A. (2001): *Sociology and the Environment. A Critical Introduction to Society, Nature and Knowledge*, Polity, Cambridge.
- Keane, J. (1998): *Civil Society. Old Images, New Visions*, Verso, London.
- Keenan, T. (1997): *Fables of Responsibility. Aberrations and Predicaments in Ethics and Politics*, Stanford University Press, Stanford.
- Larmore, Ch. (1987): *Patterns of Moral Complexity*, Polity, Cambridge.
- Larrinaga, A. (2001): "Masa-hedabideen eragina arlo intelektualean: figura intelektual berrien sorrera dela eta", *Uztaro*, **38**, 59-81.
- Lash, S. (1999): *Another Modernity. A Different Rationality*, Blackwell, Oxford.
- , (2002): *Critique of Information*, Sage, London.
- Lash, S. eta Urry, J. (1987): *The End of Organized Capitalism*, Polity, Cambridge.
- , (1994): *Economies of Signs and Spaces*, Sage, London.
- Latour, B. (1993): *We Have Never Been Modern*. Harvester Wheatsheaf, London, 1995.
- , (2000): "When science strike back: a possible contribution of 'science studies' to the social sciences", *British Journal of Sociology*, **51** (1), 107-123.
- , (2003): "Is re-modernization occurring –and if so, how to prove it?", *Theory, Culture & Society*, **20** (2), 35-48.
- Law, J. eta Mol, A. (arg.) (2002): *Complexities. Social Studies of Knowledge Practices*, Duke University Press, Durham eta London.
- Lefort, C. (1988): *Democracy and Political Theory*, University of Minneapolis Press, Minneapolis.
- Levin, M.A., Landy, M.K. eta Shapiro, M. (arg.) (2001): *Seeking the Center. Politics and Policymaking at the New Century*, Georgetown University Press, Washington, DC.
- Leys, C. (2001): *Market-driven Politics. Neoliberal Democracy and the Public Interest*, Verso, London.
- Lipset, S. M. (1960): *Political Man: The Social Bases of Politics*, Doubleday, New York.
- Lipset, S. M. eta Rokkan, S. (1967): "Cleavage structure, party systems and voter alignments" in Lipset and Rokkan (arg.): *Party Systems and Voter Alignments*, The Free Press, New York, 1-64 or.
- Lury, C. (1999): "Marking time with Nike: the illusion of the durable", *Public Culture*, **11**, 499-526.
- Macnaghten, P. eta Urry, J. (1998): *Contested Natures*, Sage, London.
- Macpherson, C.B. (1973): *Democratic Theory. Essays in Retrieval*, Oxford University Press, Oxford.
- Manin, B. (1987): "On legitimacy and political deliberation", *Political Theory*, **15** (3), 338-368.
- Mann, M. (1996): "Nation states in Europe and other continents: diversifying, developing, not dying", Non: Balakrishman, G. eta Anderson, B. (arg.): *Mapping the Nation*, Verso, London.
- Martínez, Z. (2003): "Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza. Globalizazioaren inguruko diskurtso sozio-ideologikoak", *Uztaro*, **41**, 65-100.
- Melucci, A. (1989): *Nomads of the Present. Social Movements and Individual Needs in Contemporary Society*, Hutchinson, London.
- Melucci, A. (1996): *Challenging Codes. Collective Action in the Information Age*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (2001): *Vivencia y convivencia. Teoría social para una era de la información* (Jesús Casquette arg.), Trotta, Madrid.
- Melucci, A. eta Avlitzer L. (2001): "Complexity, cultural pluralism and democracy: collective action in the public sphere", *Social Science Information*, **39** (4), 507-527.
- Mouffe, Ch. (2000): *The Democratic Paradox*, Verso, London.

- Norris, Ch. (1992): *Uncritical Theory. Posmodernism, Intellectuals, and the Gulf War*, University of Massachusetts Press, Amherst.
- Nozick, R. (1974): *Anarchy, State, and Utopia*, Basic Books, New York.
- Oakeshott, M. (1967): *Rationalism in Politics and other Essays*, Liberty Press, Indianapolis, 1991.
- O'Brien, M. eta Penna, S. (1997): *Theorising Welfare. Enlightenment and Modern Society*, Sage, London.
- Philo, G. eta Miller, D. (2001): *Market Killing. What the Free Market Does and What Social Scientists Can Do About*, Pearson Education, Edinburgh.
- Rawls, J. (2001): *Justice as Fairness*, The Belknap Press eta Harvard University Press, Cambridge, Massachusetts, London.
- Rifkin, J. (2000): *The Age of Access. The New Culture of Hypercapitalism where All of Life Is a Paid-For Experience*, Tarcher/Putnam, New York.
- Ripalda, J-M. (1996): *De Angelis. Filosofía, mercado y posmodernidad*, Trotta, Madrid.
- Rorty R. (1982): *Consequences of Pragmatism*, University of Minnesota Press, Minnesota.
- , (1998): *Achieving our Country. Leftist Thought in Twentieth-Century America*, Harvard University Press eta Cambridge Mass., London.
- Rödel, U. et alia (1989): *La cuestión democrática*, Huerga y Fierro, Madrid, 1997.
- Rose, N. (1996): "Refiguring the territory of government", *Economy and Society*, **25**, 327-356.
- , (1999): *Powers of Freedom. Reframing Political Thought*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Sanders, L. (1997): "Against deliberation", *Political Theory*, **25** (3), 347-376.
- Sahlins, M. (2000): *Culture in Practice*, Zone Books, New York.
- Scott, A. (2000): *The Cultural Economy of Cities*, Sage, London.
- Schumpeter, J. (1942): *Capitalism, Socialism, and Democracy*, Harper, New York.
- Smith, J., Chatfield, C. eta Pagnucco, R. (arg.) (1997): *Transnational Social Movements and Global Politics. Solidarity Beyond the State*, Syracuse University Press, Syracuse.
- Smith, D. eta Wright, S. (arg.) (1999): *Whose Europe? The Turn Towards Democracy*, Blackwell, Oxford.
- Soja, E. (1996): *Thirdspace*, Blackwell, Oxford.
- Strange, S. (1996): *The Retreat of the State. The Diffusion of Power in the World Economy*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Strathern, M. (1999): *Property, Substance and Effect*, Athlone, London.
- Subirats, E. (2001): *Culturas Virtuales*, Biblioteca Nueva, Mexico.
- Sudupe, J. (1994): *Ilustrazioaren kriseilupean. Argi berri bila Frankfurten*, Alberdania, Irun.
- Taylor, P. (1996): "Embedded statism and the social sciences: opening up to new spaces", *Environment and Planning A*, **28**, 1917-1928.
- Urry, J. (arg.) (2000a): "Sociology Facing the Next Millennium", *British Journal of Sociology* aldizkariako ale monografikoa, **51** (1).
- , (2000b): *Sociology beyond Societies. Mobilities for the Twenty-first Century*, Routledge, London.
- Weiss, L. (1998): *The Myth of the Powerless State*, Cornell University Press, Ithaca.
- Young, I. (2001): "Activist challenges to deliberative democracy", *Political Theory*, **29** (5), 670-690.